2018ko azaroaren 30a | 17. urtea | 744. alea
Durangaldeko astekaria
www.anboto.org

anboto

TOKIKOM



ARETO NAGUSIA HITZAREN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

10:30 IKASLE EGUNA. Liburu bat egingo dut. Liburu bat egiten irakatsiko die Maite Mutuberriak.

13:30 NAZIO-MARKAGINTZA. Nola transmititu gure balioa.

14:00 Biblia, Jesusi buruzko istorioen liburua.

14:30 OROITZAPENERAKO BINETAK.

15:00 'EMOCIÓN' liburua txirrindularitza mundu osoari eskertza da.

15:30 HONDARRIBIA. Nabaeduraren hiria. Akuarelazko margo liburua.

16:00 ZIENTZIAREN HISTORIA TXIKI BAT.

16:30 NON DAGO MIKEL LABOA? Saiakera honetan Mikel Laboaren bizitza eta obra aztertzen dira.

17:00 GAZTE BOTEREA. Gazte Boterea liburuaren aurkezpena.

17:30 ATZERRITARTASUNA. Nola egin aurre egoera honi euskaldun euskaltzale moduan?

19:00 SARRERA EKITALDIA: DIGARA. Ikuskizuna. Sarrera gonbitagaz eta aurrez izena emanda.

ABENDUAK 6, eguena

10:30 ESKU IKUSEZINAREN ITZAL LUZEA. Ekonomialarien erretorikaren kritika.

11:00 SORMEN BEKA IRABAZLEA. Gerediaga Elkarteak eta Durangoko Udalak Durangoko Azokatik abian ipinitako Sormen Beka deialdirako irabazlea ezagutzera emango dute.

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Solasaldia.
50 urtez sortzen: Benito Lertxundi.
Gidaria: Lander Arretxea

14:00 ALARDEAK , UKATUTAKO PLAZARA
Partaideak: Maite Asensio Loza eta Arantxa Iraola Alkorta, egileak.
Antolatzailea: Elkar - Berria - Jakin

14:30 DUVOISIN KAPITAINAREN MALURA. Liburuaren aurkezpena.

15:00 HEZIRAUL. Hezkuntza iraulia LPO. HEZIRAUL metodologiagaz irauli egingo da Lan Prestakuntza eta Orientabidea ikasteko era.

15:30 'A BODACOS' Liburuaren aurkezpena.

16:00 KONTRATU SEXUALA
Liburuaren aurkezpena
Parte hartuko dute: Maialen Berasategik eta Lorea Agirrek.
Antolatzailea: Elkar argitaletxea.

16:30 GURE OROITZAPENAK. Poema musikatuak. Joseba Sarrionandiaren poema musikatuen bilduma.

17:00 BIZITZA EZ AL DA OSO ARRISKUTSUA? [Habanako gaukaria] Liburuaren aurkezpena

17:30 TXORIENEKO LAU URTAROAK Liburuaren inguruko aurkezpen-solasaldi bat izango da

18:30 GOGOETAREN PLAZA Mahai-ingurua: 68tik mende erdira

ABENDUAK 7, barikua

10:30 GELDI 2011-2017. Goitibeheren jaitsierak. Euskal Herriko goitibeheren fenomenoari buruz argitaratu den lehen liburu monografikoa.

11:00 ETXERA BIDEAN. Egilea, Xamar, eta JA Irigaray solastuko dira 'ETXERA BIDEAN' liburuaren inguruan.

11:30 ITZALITAKO KALABAZEN BERPIZTEA. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa.

12:30 GOGOETAREN PLAZA.
Solasaldia.
Sortzailea kazetari eta kazetaria sortzaile: Sustrai Colina eta Garbiñe Ubeda
Gidaria: Nekane Zinkunegi

14:00 KARTZELA KALERA. Instituzio honen gaineko hausnarketa eta eztabaida

14:30 HUMANITY AT MUSIC: Mondragon esperientzia kooperatiboaren soinu banda. Hainbat idazleren testigantzak jasotzen dira esperientzia kooperatibaren inguruan. Gainera, 8 bertsolarik egindako bertso bana eta Jon Sarasuak sortutako letrak.

15:00 '1968 GIPUZKOA, ESTADO DE EXCEPCIÓN' Liburu historikoa

15:30 #BOTABA EUSKAL ESAMOLDEEN ERRONKA. Irabazleei sariak banatuko zaizkie erakundeetako ordezkarien eta sarietako babesleen eskutik

16:00 BESTEAK GURA ISPILU. Mahai-ingurua.

17:00 EUSKADI LITERATURA SARIAK. Mahai-ingurua lan sarituetako argitaletxeekin.

18:30 GOGOETAREN PLAZA Mahai-Ingurua: Sormena eta gurasotasuna.

ABENDUAK 8, zapatua

10:30 ITSASOAN BARRENA. Aspanogiko Piraten Istorioak Liburuaren aurkezpena.

11:00 Bertsozaletasunaren azterketa soziologikoaz eta bertsolaritzaren geroaz solasean:
Beñat Gaztelumendi, Harkaitz Zubiri, Igor Elortza eta Maialen Lujanbio.
Gidaria: Jone Miren Hernandez
Bertsozale Elkartea.

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Sormenetik bizi: Ander Lipus eta Maialen Errotabehere. Gidari: Maia Muruaga.

14:00 CARLOS GARAIKOETXEA. Lider bat Lehendakari.

14:30 ATERPETUAK. Liburuaren aurkezpena.

15:00 DANTZA. Pelikularen inguruko mahai-ingurua, Telmo Esnal eta Juan Antonio Urbeltz hizlari.

15:30 'TIEMPOS DE BRUMA - El crímen de Lourdes Txiki'. Itxaso Liburuaren aurkezpena.

16:00 2019ko Ilargiaren Egutegia. Ilargiaren Egutegi arrakastatsuari buruzko aurkezpena eta kontsultategia.

16:30 TELESFORO MONZON, ARISTOKRATA ABERTZALEA Antolatzailea: Txertoa argitaletxea

17:00 KULTURA, GUZTION ESKURA. Kultur esperientzia inklusiboen aurkezpena.

18:30 GOGOETAREN PLAZA. Mahai-Ingurua: Kulturaren transmisioa eskolan.

ABENDUAK 9, domeka

11:00 YOGA SAIOA. Klase gidatua.

11:30 EL PESO DE LA IRA. Nobelaren aurkezpena.
Antolatzailea: Adrián Martín Ceregido

12:00 'MIRADAS EN TORNO AL PROCÉS' Antolatzailea: Txertoa argitaletxea

12:30 URDIROTZ ETA ANTZIN. Euskal Udalekuak, historia eta istorioak,
Antolatzailea: Goitikoetxea Kultur Elkartea
Partaideak: Estepan Plazaola, Juan Martin Elexpuru eta Patxi Gallego

13:00 KOMUN'17.
Antolatzailea: Pamiela argitaletxea
Parte-hartzailea: Pablo Sastre

16:00 CÁRCELES Y DERECHOS. Alejamiento, enfermedad, acumulación de condenas. Liburuaren aurkezpena.

17:00 KALAFATE euskarazko Irakurketa Errezeko Klasiko Unibertsalen Bilduma. Liburuaren aurkezpena.

17:30 Loraldia 2019 Programazioaren aurkezpena. Parte hartuko dute: Imanol Agirrek, aurkezle batek eta artista batek.

18:00 EUSKAL HERRIKO ESTATU AUTONOMOAREN KONSTITUZIOA
Antolatzailea: Lemuria
Parte-hartzailea: Urtzi Ihitza

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Oficiala / Escuela Oficial de Idiomas
Matrikula zabalik
72,36€ ikasturte osoa
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

439 nobedadek eta 200 kultur ekitaldik baino gehiagok Durangoko Azokaren aniztasuna islatuko dute

Abenduaren 5ean zabalduko ditu ateak 53. Durangoko Azokak; euskal kulturaren eta sorkuntzaren erakustoki bilakatuko da beste urte batez

AZOKA • **ARITZ MALDONADO**

Durangoko Azoka bakarra da, baina asko dira, aldi berean. Aniztasun hori islatu gura izan du, hain zuzen ere, Gerediagak 53. Durangoko Azokan. Horrela, "DA! Asko dira" lemapean, urteko kultur ekitaldirik garrantzitsuenetako bat egingo da abenduaren 5etik 9ra bitartean. Landako Gunean hasita daude prestaketa lanak urteroko erritualari ongi etorria egiteko, eta, beste urte batez, euskal kulturaren erakusleiho izango da Durango.

Nobedadez eta kultur ekitaldiz beteta etorriko da Azoka. 439 nobedade (304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari, argitalpen elektroniko bat, jokoak, agendak, egutegiak...), 247 stand, 17 autoekoizle... Beste alde batetik, 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira, Durangoko Azoka osatzen duten zortzi guneetan zehar.

Lehenbiziko Sormen Bekaren onuraduna nor izango den ere ezagutzera emango dute aurten. Abenduaren 6ko ekitaldian izango da hori.

Durangaldeko uzta

Bosgarren urtez, autoekoizleen standa jarriko du Gerediaga elkarteak. Hamazazpi obra ikusi ahalko dira bertan. Durangaldeko argitalpenentzako standa ere ezarriko du Gerediagak, eta bertan salgai egongo da Lehior Elorriaga argazkilariak ateratako argazkiekin osatutako ANBOTOren 2019ko egutegia.

Lehenbiziko Sormen Bekaren onuraduna nor izango den ezagutzera emango dute

Gerediaga elkarteak standa jarriko du aurten ere eskualdeko argitalpenetarako

53. Durangoko Azoka izango da aurtengoa.

Tokikoa kudeatzen dugu,
globalean pentsatzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak planeta babesteko eta pertsonen ongizatea bermatzeko lan egiten du, **Garapen Iraunkorreko Helburuen** mandatu orokorrari jarraiki, bereziki, seigarrenari: guztiontzako ur garbia eta saneamendua.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

“Askoz aberasgarriagoa da kolektiboan lan egitea, bai prozesuan ikasten denagatik eta baita emaitzagatik ere”

Irudiagaz eta testuagaz egiten du lan Txakur Gorria kolektiboak, eta 53. Durangoko Azokako kartel iragarlea ere formatu horretan dago egina

SORKUNTZA • ARITZ MALDONADO

Txakur Gorria sormen kolektiboa arduratu da 53. Durangoko Azokaren aurkezpen irudiaz. Horrela, Gerediagak sortzaile gazteei pasatu gura izan die erreleboa. Nerea Ibarzabalek, Mariñe Arbeok, Malen Amenabarrek eta Ane Labakak osatzen dute sormen kolektiboko taldea. Labakagaz berba egin du ANBOTOk.

Zer erakutsi gura izan duzue kartelean?

Leloa Gerediagak eman zigun, eta aniztasuna adieraztea zen gure asmoa hasieratik. Guretzat Durangoko Azokan aniztasuna zer izan zitekeen hausnartu, eta pentsatu genuen badirela mugimendu batzuk aldiro errepikatzen direnak: liburu bat hartzea, edo norbaitegaz topatu eta besarkada bat ematea, adibidez. Mugimenduan jarri genuen arreta, izan ere, Durangoko Azokan ez ezik, hortik kanpo ere errepikatzen dira mugimendu horiek, eta euskal kulturan ere badute eragina. Txakur Gorrian irudiagaz eta testuagaz egiten dugu lan, eta, kasu honetan ere, testua osatu eta paraleloki egin genuen irudia.

Hirugarren urtea duzue bertan parte hartzen.

Bai, polita izan da ikustea gu hazten joan garen heinean Durangoko Azoka mugarria izan dela. Lehenbiziko urtean stand erdia jarri genuen, beste proiektu batzuekin batera. Iaz geuk bakarrik jarri genuen osoa. Aurten, ostera, stand erdia jarriko dugu, beste guztia ere egin behar izan dugu eta. Spoteko gidoia egiten lagundu dugu, kartela egin dugu eta irekiera ekitaldian ere parte hartuko dugu. Gerediagak horrela egin gura izan du. Artistei lan soltea eman ordez, proiektuari osotasun bat eman gura izan diote, eta hori ere aniztasunean bildu.

> *“Badira mugimendu errepikakor batzuk Durangoko Azokan, hortik kanpora kulturan eragina dutenak”*

Zeintzuk dira kolektiboan sortzearen abantaila eta desabantailak?

Gure ustez, ez dago alde txarrik. Zailtasunak egon daitezke, jakina. Adibidez, elkarregaz sortzean besteen iritzia kontuan hartu beharra dago, baina beste aldeak askoz pisu gehiago du. Sormen lana oso indibidualizaturik dago, bakoitzak bere etxean egiten du, bere koaderno edo margoekin. Baina sortzaileak dituen blokeo egoeretan, hiru kide edukitzea, hiru lagun kasu honetan, itzela da. Sormen prozesua eta emaitza bera askoz ere aberasgarriagoak dira. Gainera, gure kasuan, bakoitza bere kabuz heldu zitekeenera baino eremu askoz ere zabalago batera heltzen gara elkarregaz jardunez gero. Bestela, ez dut uste Azokako aukera irtengo zenik.

> *“Ez dakit zenbaterainoko inkoherentea izango zen jada ospea duen adin bateko artista bati agintzea diseinua”*

Kolektibotasuna ez ezik, gaztetasuna ere nabarmendu gura izan du Gerediagak.

Gure ustez, koherentzia osoa du horrek, lantzen duten gai nagusia aniztasuna dela kontuan hartuta. Lau emakume gazteren kolektibo bati eskatu diote diseinua egiteko. Ez dakit zenbaterainoko inkoherentea izan daitekeen jada ospea duen adin bateko artista bati eskatzea hori egitea. Sormen Beka ere atera dute, eta horrek ere erakusten du sortzaile berriengan jarri dutela ardatza.

Aurkeztuko duzue nobedaderik aurtengo Durangoko Azokan?

Proiektu berri bi aurkeztuko ditugu. Bata, *Lauhazka* deitzen da. Azpeitiko Udalaren sormen bekari esker kaleratu dugu. Lauron artean sortu dugun koaderno formako liburu bat da. Kate moduko bat egin dugu gure artean; bakoitzak lau egun zeuzkan bururatzen zitzaiona sortzeko, eta testuekin eta ilustrazioekin egina da. *Memoria Lehortzen* proiektua ere aurkeztuko dugu: hamabi koadro eta koplagaz betetako postaltxoekin osaturiko kutxatxo bat da.

Horrez gainera, Ainhoa Agirrezaldegigaz, Uxue Alberdigaz eta Miren Artetxegaz batera infografia bat egin dugu, bertsolaritzaren bilakaera genero aldetik aztertu duena. Ikerketa lantxo bat egin dugu mugarriak zeintzuk izan diren aztertzeko, eta Malenek eta Mariñek irudira pasatu dute hori.

“Euskara batuaren aldarrikapena Astolan egitea erabaki zen, Durangoko Azokagaz batera”

Aurten 50 urte bete dira euskara batua sortu zela; Lizundiak euskaltzain lez eta Aromak kazetari lez parte hartu zuten sorrera hartan

EUSKARA • MARKEL ONAINDIA

Beste hainbat proiektugaz lez, euskara batuaren sorreran babes lana egin zuen Gerediaga elkarteak, 1968ko prozesuan batzartzeko lekua utzita. Elkarteko kide dira Juan Antonio Aroma eta Jose Luis Lizundia, eta batzar haietako protagonistak izan ziren, gainera.

Euskara batua ezartzeko batzarretako batzuk Durangaldean egin ziren. Bata Ermuan, eta bestea Astolan, Durangoko Azokaren testuinguruan. Zergatik aukeratu zen Astola?

Jose Luis Lizundia: Gipuzkoa salbuespen egoeran zegoen, eta batzarrak egitea zaila zen. Arantzazukoa egiten utzi zuen gobernadoreak, Euskaltzaindia zelako eta Antonio Arrueren bitartez eskatu zelako. Baina, bestela, zail zegoen. Arantzazukoaren ostean, aldarrikapena Oñatin egin behar zen. Baina Gipuzkoako egoeraz aparte, herriko jaietan boikota egin zuten, eta nahastuta zegoen giroa. Hargatik, Durangoko Azokagaz batera egitea erabaki zen, Astolan.

Euskaltzain lez joan zen Lizundia. Baina idazleak eta kazetariak ere gonbidatu zintuzteten, ezta Aroma?

Juan Antonio Aroma: Bai. Nik Durangaldeko kronikak egiten nituen, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan. Azken honetan, *Hamabi harrietatik* deitzen zen eskualdeko atala, bertako notiziekin. Adibidez, Jose Antonio Azkorbebeitiak Abadiñoko notiziak lantzen zituen, *Saibiko artzaia* ezizenagaz sinatuta. 1975ean, sanantonioei eskainitako alean, *Batua bai, batua ez* izeneko artikulu bat zetorren. Guretzat Jose Angel deitzen zen Joseba Sarrionandiaren lehen artikulua ere argitaratu zen bertan. Euskaraz idazten nenbilenez, Ermuko batzarrera gonbidatu ninduen Angel Zelaietak, *Anaitasuna*n idazten zuen mallabitarrak.

> “
> ***Hezkuntza mailan, batez ere, oso garrantzitsua izan zen euskara batua sartzea***
> –

Eztabaida sortu al zen euskara batuaren inguruan?

J.L.L.: Aurkako indar bi zeuden. Bata elizgizon integristena zen, eta bestea EAJko sektore bat. Orduan, euskara batua ezkerragaz eta marxismoagaz lotzen zuten. Mitxelena bera ere EAJkoa zen, baina indarrak enkistatuta zeuden. Diktadura garaia zen, eta gauzak ezin ziren publikoki egin askotan. Kontuan eduki behar da momentuko testuinguru politikoak ez zuela euskara batua sozializatzen laguntzen.

J.A.A.: Orduan euskara batuaren aurka indar handiak zeuden. *H* madarikatua ere sortu zen, eta grekeraz *eta* esan gura duenez, ezkerrekoen joera bat zela zioten batzuek. Kaka-nahaste bat izan zen.

Baina, argi zeneukaten aurrera egin behar zela.

J.L.L.: 1980an Eusko Jaurlaritza osatzean, gobernuak batua ofizializatu zuen, bide hori hartu zuen. Hezkuntza mailan, batez ere, oso garrantzitsua izan zen batua sartzea. Etxenike orduko sailburuak ere esana du: zelan izango zen bideragarria Durangon era batera erakustea eta Azpeitian beste batera? Gainera, gaur egun mugikortasun handiagoa dago; azpeitiar bat Durangon egon daiteke, edo mungiar bat Azpeitian.

J.A.A.: Hizkuntza batek egitura bat behar du. Zein euskalkitan argitaratuko genituen unibertsitateko liburuak? Hizkuntza bateratua edukitzea derrigorrezkoa zen gauza batzuetarako. Gainera, hizkuntza kolokialean arazoak sortzen zaizkigu; adibidez, gipuzkoarrek ez dute ulertzen Bermeoko edo Ondarroako euskara.

J.L.L.: Gero, beste kontu bat da gipuzkoarrek ez dutela besteena ikasteko ahaleginik egiten. Placido Mugikak, hiztegia egin zuenak, zioen ea zertarako eztabaidatzen dugun, euskara batua gipuzkera dela. Lafittek erantzun zion, beraz, Euskaltzaindia barik Giputzaindia deitu beharko geniokeela (barrez).

Lizundia euskaltzainak Durangaldeko alfabetatze dinamikako arduradun izendatu zuen Aroma.

J.A.A.: Durangon bizkaieraz hasi ginen, Patxi Zurikaraigaz. Aurretik, Herri Gaztedi deitzen zen mugimendu bat ere ibili zen euskara irakasten. Gero, alfabetatze arloan, lehenik irakasleak prestatzeko saioak egin genituen, eta ostean herrietan klaseak ematen hasi ginen, Euskaltzaindiaren babesagaz. Titulua atera, eta Euskaltzaindiako irakasle txartela egin genuen. Durangon jesuitenean ematen genituen eskolak, eta eskerrak eurei! Hogei gela izateraino heldu ginen, eta jesuitek denak utzi zizkiguten. Jesuitek alfabetatze kanpainetan edukitako inportantzia ez da inoiz baloratu behar beste; bertan sortu ziren nagusien eta umeen eskolak, eta baita bertsolari eskola ere.

Juan Antonio Aroma eta Jose Luis Lizundia.


4) Premia horretan ikusi ditugu geure burua Euskal Herriaren ganako eginbide lau betetzen ez dela ikusirik.

5) Geure arteko batasun hau Euskal Herriari eta Euskaltzaindiari eskaintzen diegu, onizat bat dezaten erreguarekin batera.

6) Hemen hartutako erabakiak beteko ditugula zin egiten dugu, geure choreagatik.

Baionan, 1970-garreneko Bazko-igandean.

Eibarren, 1970-garreneko lehen maiatzean.

Jose Mari Olanga. Itxaki Beobide. M. Karmen Aranburu. Antoni Sugarna. Jox Tolosa. Jose Mari Aranburu. Andoni Sorzigi. Jasinto F. Setien. Jose M. Iturrioz. Begoña Arregi. Jabier Zubisurre. Imanol Laspiur. Enrike Heras. Josune Tabuxarreta. Xabier Zubizarreta. Jesus M. Amundarain. Bernabe Beregibar. Eduardo Larrategi. Itxaki Beristain. Jon Argiarena. Karmele Errotatxe. Jose Luis Epraun. Juan A. Aroma. Patxi Zabaleta. Juan Zabalza. Begoña Etxeburria. Julian Irizuda. Serafin Basauri. Felix Etxeburria. Anton Santamaria. Itxaki Zumalabe. Norbert Tamer. Luis Mitxelena.

Gabriel Aresti. Xabier Kintana. Imanol Berriatua. J. L. Alvarez Enparantza. Juan Antonio Letamendia. Daniel Landart. Patxi Altuna. Ramon Kanblong. J. M. Torrealdai. Ibon Sarasola. Jose Luix Lizundia. Salbador Garmendia. Juan San Martin. M. Karmen Garmendia. Xabier Gereño. Ramon Saizarbitoria. Anjel Zelaieta. Xabier Lete. Jose Antonio Artza. Amaia Lasa. Patri Urkizu. Anjel Lertxundi. Jon Zorrozua. Abel Muñategi. Mikel Ugalde. Kepa Enbeita. Xabier Mendiguren. Lardes Gandiaga. Markax Amundarain. J. M. Beristain.

14 15

'Batasunaren Kutxa' liburua hainbat euskaltzain eta idazlek sinatu zuten, Lizundiak eta Aromak ere bai.



“Denok maite ditugun sudur gorrien bitartez, tradizioaren transmisioa egin gura izan dut ”

Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz eta Xabier Zabala eta Maite Mutuberriagaz batera, 'Musua' disko-liburua kaleratu berri du Leire Bilbao idazle ondarroarrak

Leire Bilbao Barruetabeña
Idazlea
Ondarroa | 1978

HAUR LITERATURA • M. ZUAZUBISKAR

Durangon bizi den Leire Bilbao ondarroarrak 'Musua' disko-liburua kaleratu berri du Durangoko Azokarako, Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz batera. Bilbaok eta pailazoek Saguganbaran aurkeztuko dute euren lana, abenduaren 5ean.

'Musua' disko-liburua kaleratu berri duzue. Zertan datza?

Musua disko-liburua naturan eta kulturan oinarrituta dagoen liburua da. Gainera, egutegiagaz eta urtaroekin zerikusi handia du. Esan daiteke disko-liburu honek egutegiari buelta ematen diola eta urte guztiko sasoi eta urtaroen gainean kantatzen dela. Baina garrantzitsuena da tradizioari lotu direla abestiak. Hau da, hilabete bakoitzean garrantzitsua den egun bati abesten zaio. Esaterako,otsailean, Santa Agedari; ondoren, inauteriei; gero, San Juanei, udaberriari, Arimen Gauari; eta urtea amaitzeko, Olentzerori eta Mari Domingiri. Zentzu horretan, diskoa oso borobila dela esango nuke, urtaroei eta urteari errepaso bat egiten die eta.

Horrez gain, kanta batek duen mezua oso garrantzitsua da; berriak sortzen dira, eta zaharrak mantendu. Hau da, euskal tradizioko hainbat egun garrantzitsu hartu eta horiek kantatzea beharrezkoa da gure tradizioari eusteko, horiei eutsi eta berriak sortzeko. Pailazoek kantu berriak sortu dituzte, gure tradizioari eusteko beharrezkoak direlako; hori guztia beti pozez betetako tonu alai batean. Suz beteriko musu handi bat eman gura diote euskal kulturari Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek.

> “ *Lanak buelta bat ematen dio egutegiari, urte guztiko sasoi eta urtaroen gainean kantatzen da eta”*

Pirritxen, Porrotxen eta Marimototsen abestiei letrak sortu dizkiezu. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia ederra izan da. Euren gonbidapena pozik hartu nuen. Gonbidapena jaso nuenean oso argi nuen Euskal Herriko hainbat eta hainbat umek euren abestiak kantatzen eta ikasten dituztela. Pailazoek gure hizkuntzaren transmisioa ahalbideratzen dutenez, eta horretan eragile handiak direnez, niretzat oso garrantzitsua izan da tradizioa sartzea disko-liburu honetan. Denok maite ditugun sudur gorrien bitartez, tradizioaren transmisioa egin gura izan dut, eta Euskal Herriko umeak kantuan eta dantzan jarri.

> “ *Suz beteriko musu handi bat eman gura diote euskal kulturari Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek ”*

Lehen aldia da pailazoekin lan egiten duzula?

Bai, lehenengo aldia izan da eta badirudi ez dela azkena izango. Eurekin lan egitea polita izan da, Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek alaitasuna, poza eta jolasa darabiltelako beti, gure hizkuntza eta gure kultura ahaztu barik. Gainera, plazerra da estimatzen eta miresten duzun jendeagaz lan egitea.

53. Durangoko Azoka gainean daukagu.Leire Bilbaorentzat nolakoa izango dela aurreikusten duzu?

Durangon bizi naiz, eta, beraz, egunero ibiliko naiz Azoka ingurutik. Hala ere, egunero-egunero Azokatik ibiliz gero, azkenengo egunean gorputzak deskantsu bat behar izaten du. Azoka beti da gauza ederra eta, batez ere, kulturgileen bilgune bat. Plazer handia izaten da urte luzean zehar ikusi ez dituzun lagunekin bat egitea. Pozik ibiltzen gara Azokan zehar. Guretzat Azoka garrantzitsua da. Hor egotea eta urte guztian zehar zenbat lan egiten diren ikustea oso garrantzitsua da. Literaturaren festa bat da. Beraz, ospatu dezagun.

Sortzaile askok Azoka bueltarako ateratzen dituzte euren lanak. Garrantzitsua izaten da lanak Azokarako argitaratzea?

Kontua da liburu bat argitaratzen denean, liburu horrek denbora laburra izaten duela erakusleihoetan, egunkarietan, komunikabidetan eta abar. Liburua udaberrian kaleratzen baduzu, esaterako, Azoka heltzen denerako hurrengo urtean gaudela ematen du. Nire kasuan, *Leiho bat eta leiho bi* liburua udaberrian kaleratu nuen, eta sentsazio hori izan nuen. Azoka erakusleiho garrantzitsua da eta ederra da beti han egotea. Gainera, nobedadeez aparte aurreko urteetako lanak ere aurkitu ditzakegu. Nire ustez, ez ginateke nobedadeetan bakarrrik zentratu behar.

Abenduaren 5ean, pailazoekin batera 'Musua' aurkezten aurkituko zaitugu Saguganbaran.

Saguganbara tamainako aretoa da, ez handiegia ez txikiegia. Han egoten gara denok elkarren beroan. Umeak ondoan izaten ditugu eta ederra izaten da.

euskadi.eus

Enplegua, etxebizitza, laguntzak, bekak, diru-laguntzak, informazioa, parte-hartzea, gardentasuna eta askoz ere gehiago, edonoiz, edonon eta edozein gailutatik

Zure euskal administrazio publikoa eskura

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

“Irakurtzea gustuko duen nerabea irakurle heldu legez tratatu beharko litzateke”

Haur Besoetakoaren itzulera kontatzen duen komikia kaleratu du Xabiroi aldizkariagaz

KOMIKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

'Haur Besoetakoa: Paristik datorren artista' komikia dakar Durangoko Azokara Unai Iturriagak; Alex San Vicente arduratu da marrazkiez, eta durangarrak gidoia idatzi du. Xabiroik eta Dani Fanok euskal komikigintzaren berpizkundean eduki duten garrantzia nabarmendu gura izan du, bide batez.

Zelakoa da Haur Besoetakoaren itzulera?

Komikietan, zein orokorrean, erreferentziak sartzea gustatzen zait. HBren lehenbiziko komikia *Casablanca*ko [Michael Curtiz, 1942] bukaera ezagunagaz amaitu zen. Beraz, itzulera Parisen hasten da, HBren nolabaiteko erbestean. Oparotasunean bizitzera ohitua zegoen, baina ezer barik bueltatu da. Boterea berreskuratzeko egiten duen bidea kontatzen dugu ale honetan.

Umore edo parodia klabean hau ere, noski.

Aurrekoa lotuago zegoen mafia estiloagaz, zentzu horretan. Haur Besoetakoa berba joko bat da, *The Godfather* [Francis Ford Coppola, 1972] euskaraz aitabitxia litzateke, eta hau, horregaz lotuta dago. Lehenbiziko alea zazpi urteko prozesu bat izan zen, eta oraingoan hiru urte behar izan ditugu. Nik momentuko erreferentziak hartzen ditut idazterakoan, eta, beraz, honek ere badu eragina. Ale honek hari modu bat du, istorioa lotzen duena. Hau ez da hainbeste mafia generoko istorio bat, eta gizarte gaiak gehiago ukitzen ditu, zeharka bada ere: etorkinen gaia dago, hauteskundeak... ez dute irakurketa baldintzatzen, baina momentuko erreferentzia ugari daude.

12-18 urteko gazteentzako komikia da berez, baina helduentzat ere bada. Erronka polita izan behar du hori idazteak.

Xabiroik DBHn banatzen du aldizkaria. Beraz, Dani Fano arduradunak adin tartea kontuan hartzeko eskatu zigun. Oinarrizko istorio bat dago, 12-13ko batek irakurri dezakeena, eta gero, ezagutzaren araberako geruzak daudela esan daiteke. Ezer esatekotan, helduentzako istorio bat dela esango nuke. Marrazki motagatik, esan digute inoiz Durangoko Azokan ea umeentzako istorioa den, baina ez da horrela. Ariketa polita da egiteko, zineman familia osoarentzako pelikuletan egiten den bezala. Adin guztietarako balio behar duen istorio bat daukazu, eta horri elementuak gehitzen dizkiozu, umeek ez, baina gurasoek ulertuko dituztenak. Kasu honetan, berdina da. Hainbat erreferentzia daude, zineari, aktualitateari eta nire munduari, azken finean. Euskal munduko pertsonaia, aktore eta idazleen kameo asko daude. Irakurle helduarentzat aberasgarriak dira. Polita da, baina neurria hartu behar zaio. Inoiz ez da ahaztu behar non publikatu behar den. Gehituko nuke, nerabe irakurzale bat heldu baten moduan tratatu behar dela.

> “Urritasun erabatekotik gatozela kontuan hartuta, esan daiteke loraldia ematen ari dela komikigintzan”

Loraldi bat ematen ari da komikigintzan?

Kontuan hartu behar da urritasun erabatekotik gatozela, baina baietz esan dezakegu. Eta horren arduradunetako bat Xabiroin arduraduna den Dani Fano da. Ni natorren bertso mundua askoz koordinatuagoa da, eta elkarrekintza gehiago dago; komikigintza bakartiagoa izan da beti, eta Xabiroiren bueltan dagoen jendeak beste plano batera eraman du mundu hau. Hainbat gurutzaketa eragin ditu, eta normalean komikiari begiratzen ez dion munduaren arreta erakarri dute lotura horiek. Lehen apenas existitzen zen gidoilariaren figura komikigintzan, eta orain Eider Rodriguez eta Harkaitz Cano batu dira marrazkilariekin, besteak beste. Horri gehitu helduentzako nobela grafikoan egon den eztanda txikia. Niri betidanik gustatu zait komikia, baina Danik deituko ez banindu, ez dakit non egongo nintzen.

Unai Iturriaga Zugaza-Artaza
Bertsolaria eta gidoilaria
Durango | 1974

Sustapen honen barruko planen arrisku-maila maila txikiaren eta oso handiaren artekoa da.

Zure Etorkizunak Behar Zaitu!

(Zure Etorkizunak BASKEPENSIONES Behar Du)

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

kutxabank

BASKEPENSIONES
BANAKAKO BGAEa

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

Etorkizunerako planetan liderrak.



Paddy Rekalde
Idazlea eta poeta
Bilbo (Durangon bizi da) | 1964

"Protagonista ez da hain umea oraingoan, eta bere autonomia gozatzen hasten da"

Paddy Rekaldek urte biren barruan haurrentzat kaleratu duen bosgarren liburua da 'Itsasadarreko kontuak'

HAUR LITERATURA • JOSEBA DERTEANO

Gurasoak egun batzuetarako Bartzelonara joan, eta aitita-amamen etxean geratuko da Gari. Itsasadar baten inguruan hainbat abentura bizi eta hainbat ikasgai aterako ditu. Liburua Elkar argitaletxearen Xaguxar gaztetxoentzako bildumaren barruan argitaratu dute.

Urte bitan haur literaturako bost liburu kaleratu dituzu. Gustua hartu diozu genero horri?
Aspalditik eduki ditut istorio horiek buruan. Kontu batzuek bat egin dutenean idazten eta liburuak sortzen hasi naiz. Gustura nabil.

Zer kontatzen du 'Itsasadarreko kontuak' liburuak?
Gariren gurasoak Bartzelonara doaz eta bera aitita-amamekin geratuko da. Aurreko libururik gehienetan istorio bat zen ardatza. Oraingoan hainbat istorio daude, kateatuta. Abentura txiki bakoitzean hausnarketarako tarte bat dago. Bakoitzean zerbait gertatzen da, umeei hausnarketarako bidea ematen diena.

Abentura txiki horiek itsasadar baten inguruan kokatuta daude?
Bai, hantxe bizi dira-eta aitita eta amama. Bilbokoa naiz eta inguru hura izan dut buruan: Deustu, Zorrozaurre inguru horretan.

Aipatu izan duzu haur literaturan ez dela berdina zazpi urteko batentzat edo hamarreko batentzat idaztea. 'Kartoizko kaja' liburuan Anartz protagonistak zazpi urte zituen. Zenbat ditu oraingoak, Garik?
Oraingo honetan protagonista nagusiagoa da eta istorioak bestelako parte hartze bat eskatzen dio. Ez da hain umea. Autonomia propioa gozatzen hasten da, lagunekin. Bere mundu horretan murgildu, eta deskubritzen dituen gauzek eragina dute bere pentsakeran eta sentimenduetan.

Maitasunaren lehenengo zirrarak ere bizi ditu 'Musua' izeneko atalean.
Protagonistaren lagun-mina neska bat da, independentea, beldurrik bakoa eta indartsua. Berak hartzen du iniziatiba eta ez da esperoan geratzen. Musu bat eman gura dio eta eman egiten dio. *Lapatza* ipuinean agertzen den neska ere, Garazi, antzeko neska da. Ahaldundutako neskak direla esango genuke orain.

'Lapatza' liburuan gertatu zen moduan, Jokin Mitxelenak egin ditu marrazkiak.
Jokin Mitxelena nire marrazkilaririk gogokoena da. Elkar-ek proposatu zidan *Lapatza*-rako eta neure kabuz lotu dut oraingo honetarako.

Kaleratu aurretik, seme-alabei irakurri izan dizkiezu liburuak euren iritzia jasotzeko. Oraingoan ere bai?
Seme txikiari, Anartzi, irakurri nion. 10 urte ditu eta barre egin zuen. Umeek eskertu egiten dute normaletik irteten den hori. Esaterako, liburuko une batean protagonistek akuario bat muntatzen dute fundizio baten gainean. Horrelako bitxikerietatik abiatuta, umeek euren mundu propioak eraikitzen dituzte. Imajinazioa dantzan jartzen dute.

Landetako hankapaluak eta Eugiko dantzariak, 'Durangon Folk'-en eskutik

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Euskal Herriko folklorea eta beste lurralde batzuetakoa ere erakusteko asmoagaz jaio zen *Durangon Folk* jaialdia, orain 20 urte. Kriskitin dantza taldearen eskutik hamaika dantza talde eta musikari etorri dira Durangora, tokian tokiko folklorea ezagutzera eta gozatzera gonbita eginez: Galizia, Herrialde Katalanak, Gaztela, Asturias, Menorca, Andaluzia, Murtzia, Aragoi, Txina, Kolonbia, Kroazia, Kuba... Askotarako eman dute urte hauek.

Urteurren borobila du dantza eta musika jaialdiak oraingoa, eta dantzatuz ospatuko dute. Nafarroako Eugiko dantza taldea eta Landetako Mont de Marsan herriko Lous Tchancayres hankapalu taldea etorriko dira Durangora, abenduaren 8an. Kriskitin dantza taldeagaz batera musika eta dantza zabalduko dute Durangoko kale eta plazetan, 12:00etan hasi eta 14:00ak bitartean. Jaizale txistulari taldea eta trikitilariak izango dituzte lagun.

XX. Durangon Folk jaialdia egingo dute, abenduaren 8an, 12:00etatik 14:00etara

Landetako Mont de Marsan herriko hankapalu taldea etorriko da Durangora. **KRISKITIN.**

Txisturako hiru pieza estreinatuko dituzte 'Txistua XXI. mendean' kontzertuan

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Eszenatokian beste musika instrumentuen mailan jarri gura duen *Txistua XXI. mendean* kontzertua eskainiko du Silboberri txistu elkarteak, abenduaren 8an. San Frantzisko elizan izango da, 19:30ean, eta txisturako hiru pieza estreinatuko dituzte: *Taupadak* (C. Camarero-Sevilla), *Tríptico Sacro-Festivo* (T. Aragües-Madrid) eta *Naizena* (F. Ibarrondo-Paris). Horiekin batera, *Lich* (Y. Campos-Iruña) eta *Gaia eta zazpi bariazioak (*C. Ibarra-Bilbo) piezak ere joko dituzte.

San Frantzisko elizan izango da kontzertua, abenduaren 8an, 19:30ean

Konposizio atonalagoak, modernoagoak dira batzuk, klasikoagoak besteak, baina oso oraingo piezak guztiak, gaur egungo konpositoreek sortuak. Ibarrondo, Camarero eta Ibarra kontzertura joatekoak dira.

Abenduaren 8an Joseba Jakaren oroimenezko herri lasterketa egingo dute

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Aurten ere, adin askotariko korrikalariak batuko ditu Durangon egingo den Joseba Jaka herri lasterketak. Abenduaren 8an izango da euskalzale eta kirolzale zarauztarraren oroimenezko XVI. herri lasterketa, Durango Masters Kirol Klubak antolatuta. Nagusien lasterketa 11:45ean hasiko da, sei kilometro izango ditu eta hiru sailkapen egongo dira: 1999tik 2002ra jaiotakoak, seniorrak eta beteranoak (40 urtetik gorakoak). Izen-ematea 10:00etatik 11:15era egingo da.

Aurretik umeek parte hartuko dute. Lehenak 2008an edo aurretik jaio zirenak izango dira, 10:45ean; 2006-2007an jaiotakoak, 11:00etan. 500 metro egingo dituzte. 2003tik 2005era bitartean jaiotakoak 11:15ean irtengo dira. 800 metroko lasterketa egingo dute. Proba hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko dute izen-ematea.

Probak amaituta, sari banaketa eta zozketa egingo dituzte. Guztiei txokolate beroa, salda, kafea eta ura eskainiko dizkiete.

Lekuan lekuko egutegia

Ohiko lekuetan eta Durangoko Azokan Durangaldeko argitalpenak stand-ean *(Barrenkale 39-40)* eskuragarri!

2019
Durangaldeko egutegia

2€

anboto komunikabideak
Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

“Norberaren ideiak ilustratzea besteen ideiak marraztea baino zoroagoa da”

53. Durangoko Azokan lan bi kaleratuko ditu Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak: 'Kokoak, marrazkiei kosk!' eta 'Poza'

Eider Eibar Zugazabeitia
Ilustratzailea
Zornotza | 1980

ILUSTRAZIOAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ia 20 urte daramatza Eider Eibarrek ilustratzaile lanetan. Urte hauetan guztietan hamaika lan argitaratu ditu, eta bere azken lan biak Durangoko Azokarako aterako ditu labetik.

Iskander Sagarminagagaz batera 'Kokoak, marrazkiei kosk!' lana argitaratuko duzu Durangoko Azokan.
Kokoak web atari bat da, eta han ilustrazioen sorkuntzen prozesua erakutsiko dugu. Denok dakigu kokoak mundu guztian daudela, leku guztietan, eta justu guk topatu ditugun zazpiek berezitasun bat dute: oso irudimentsuak dira. Kokoek, marrazki irudimentsu bat ikusten dutenean, zulotxo bat egin eta barrura sartzen dira. Barrura sartzeko prozesu hori da guri erakusten digutena. Azken finean, marrazkiak nondik datozen erakutsiko digute.

Nolako sortze prozesua izan du?
Oso dibertigarria izan da. Marrazki asko autobusean eta igerilekuan egin nituen. Pertsonaiak nolakoak diren, ze izaera duten... hori guztia egitea oso polita izan da. Gainera, prozesu hau ez da amaitu, eboluzionatzen jarraitzen du.

> “*Norbere ideien irudiak sortzea edo beste batenei irudiak jartzea ezberdina da; batez ere, errespetuagatik*”

Lan honetan, beste lan batzuetan ez bezala, zeure ideiak ilustratu dituzu.
Norbere ideien irudiak sortzea edo beste batenei irudiak jartzea oso ezberdina da, batez ere errespetu kontu batengatik. Idazle batek testu bat ematen didanean, niretzat ohore bat izaten da. Nahiz eta gehienetan sortzeko askatasun osoa ematen didaten, errespetuz jokatzen dut beti eta eurekin berba egiten dut nondik jo gura duten jakiteko. Kokoak lanean, ostera, ez dago errespeturik. Hau da, zerbait berria badator, ondo etorria izan dadila, eta prozesu erdian dena aldatu behar bada, aldatu egiten da. Norberaren ideiak ilustratzea besteen ideiak marraztea baino zoroagoa da.

Uxue Alberdigaz batera 'Poza' lana egin duzu. Lan honetan muga gehiago izan dituzu. Lotuago egon zara?
Poza Uxueren poza da. Bere barrutik irtendako zerbait da, eta irudiak jartzeko eskatu zidan. Lanean poz ezberdinak deskribatzen dira. Bertan pertsonaia bat dago, baina beste pertsonaia pila bat dago bere inguruan. Jolas bat ere badago... Aspaldian egin ez dudan eskuzko jolas bat izan da, baina jolas arautu bat. Alde horretatik, *Kokoak* kaosa da, eta *Poza*, oreka.

Nolakoa izan da Uxue Alberdigaz lan egitea?
Aurretik ere elkarregaz lan egin dugu eta proposamena bota zidanean oparia izan zen niretzat. Oso gogoko dut bere lana, eta beragaz lan egitea, gogokoago. Parte-hartzailea eta esker oneko pertsona da. Prozesu oso polita izan du *Poza*k.

Gaztea zaren arren, ia 20 urte daramatzazu ilustratzaile lez. Ondo baloratuta dagoen lana da?
Lan asko egin dut mundu honetan, eta mugituz gero honetatik bizi daiteke. Niretzat garrantzitsuena da bidean lagun asko egin ditudala, eta nire hastapenetan ezagutu nuen jendeagaz lanean jarraitzen dudala, bai idazle bai argitaletxeekin. Oso pozik nago, gauza asko ikasi eta egin ditut eta. Apurtxo bat txotxongilolariak gara.

Durangoko Azoka gainean dago. Nola planteatu dituzu bost egunak?
Azoka beti izaten da sorpresa bat. Helburuetako bat betikoak ikustea izango da, lagunak. Bestalde, aurten gehiago disfrutatzea gura dut. Orain arte literaturan zentratuta egon naiz eta beste guneak hobeto ezagutu eta disfrutatu gura ditut.

Zerbait gehitu gura duzu?
Gaur egun hainbat irudi eta kartel jasotzen ditugu, eta asko sinatu barik egoten dira. Egile horiei lanak sinatzeko deia egin gura diet. Oso kartel politak ikusten ditut, eta ez jakitea nork egin duen amorragarria izaten da niretzat. Norberaren lana aldarrikatu egin behar da.

'Agur Etxebeste!'-ren grabaketako irudiak eskainiko dituzte Irudienean

Etxebeste familiaren abentura berriaren 'making of'-a erakutsiko dute abenduaren 8an

Ramon Agirre aktorea 'Agur, Etxebeste!' filmeko grabaketan.

ZINEMA • JOSEBA DERTEANO

Etxebeste familia bueltan da 13 urteren ostean. *Aupa Etxebeste!* filmak izan zuen arrakasta oraindik gogoan, Telmo Esnal eta Asier Altuna berriro kameren atzean jarri dira bigarren partea zuzentzeko: *Agur, Etxebeste!*. Emaitza ikusteko, itxaron egin beharko da oraindik, baina Durangoko Azokan presentzia izango du: grabaketako irudiekin osatutako bideolana, *makin of*-a, erakutsiko dute abenduaren 8an, 17:00etan, Irudienean.

2005ean estreinatu zenean, *Aupa Etxebeste!* boom bat izan zen. Euskarazko filmik ikusiena izan zen, iaz *Handia* pelikulak postu horretan ordezkatu zuen arte.

Ia lantalde bera

Etxebestetarren abentura berriarako, ia lantalde bera batu du Irusoin ekoiztetxeak. Ramon Agirre aktorea Patrizio Etxebesteren azalean sartu da berriro eta Elena Iruretak Maria Luisa emaztearen papera errepikatuko du.

'Agur, Etxebeste!' film berriak, lehenengoko lanaren antzera, tonu umoretsuari eutsiko dio

Filmeko tramaren gainean ez dute askorik aurreratu. Lehenengo pelikularen amaieran Patrizio Etxebeste alkate moduan ageri da. *Agur, Etxebeste!* filmaren hasieran, Patrizio gaixotu eta bere emazte Maria Luisak hartuko du alkatetzaren ardura.

Film berriak, aurrekoaren antzera, tonu umoretsuari eutsiko dio eta etxebestetarrek egoera aldrebesei aurre egin beharko diete.

Berton Bertokoa dinamikaren bideoklipa ikusgai izango da

Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldearen musikagaz eta Miren Amurizaren letragaz osatuta dago

BIDEOKLIPA • J.D.

Eskola publikoetako jantokietan bertako eta sasoiko produktuak jatearen aldeko Berton Bertokoa dinamikak *Sukalde bat jantokian* izeneko bideoklipa estreinatu zuen apirilean, euren dinamika zabaltzeko. Bideoklip hori Irudienean erakutsiko dute abenduaren 6an, 12:15ean.

Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek musika taldeak egin zuen abestia, Miren Amurizaren letra oinarri hartuta. Eskualdeko eskoletako umeek ere parte hartu zuten koroak eginez.

12 ikastetxetan lanean

Ekainean Zornotzako eta Mallabiko eskola bana batu ziren Berton Bertokoara. Horrela, gaur egun 12 ikastetxek osatzen dute dinamika.

Urtean zehar askotariko ekintzak egiten dituzte euren ekimena sustatzeko, eta Eusko Jaurlaritzara ere jo izan dute sukalderik ez duten eskoletan azpiegitura horiek eskatzeko.

Berton Bertokoa dinamikak hainbat aurrerapauso eman ditu sortu zenetik hona.

IRUDIENEA IKUS-ENTZUNEZKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

11:00 Ikasle Eguna. **Soinu efektuak zinemagintzan**

17:00 **'Atsolorra'** film laburra erakutsiko dute jendaurrean eta solasaldia egongo da gero. Publikoaren galderei ere erantzungo diete.

17:30 **Sarkor - 'Garena gara'** Taldearen ibilbidea biltzen duen dokumentala.

19:00 **'Gu, Laboa'**. Dokumentala.

ABENDUAK 6, eguena

12:15 **'Sukalde bat jantokian' bideokliparen aurkezpena**

12:30 **'Gure oroitzapenak'** filmaren aurkezpena.

15:30 **Harri zopa** Umeentzako film emanaldia.

16:15 **Hiru3 komunitateko jaia, eskulanak eta photocall-a.** Pelikulagaz lotutako eskulanak eta argazkia ateratzeko aukera.

17:00 **Haurrentzat bikoizketa tailerra**

17:55 **Mahai-ingurua: ZineaSORTZEN**

18:00 **Ez nazazue esnatu (Kimuak)**

18:30 **Zain (Kimuak)**

18.45 **Espedizio handia (Kimuak)**

19:00 **'Jainkoak ez dit barkatzen'.** Proiekzioa eta solasaldia zuzendariagaz.

ABENDUAK 7, barikua

11:00 **Erroak.** Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko sei ikaslek 2018ko udaberrian sortutako filma.

11:30 **'Gurean' dokumentala.** Jaietan animaliek jasaten duten "zapalkuntza" jaso du Askekintzak dokumentalean

12:30 **'Errementari'.** Filmea aurkeztu eta proiektatu.

15:00 **'Hurrak eta lapurrak 2'.** Haurrentzat film emanaldia.

17:00 **Hutsune zurian.**

17:30 **Begi ninien koreografia.** Omar Nabarroren 'Haragizko amoreak' deritzan olerki liburuko, 'Lepoaren Geografia' olerki musikatua.

18:00 **'Oreina' filmean oinarritutako 3 film labur.**

19:00 **'Aralar, mundua leku den lurra'** dokumentalaren emanaldia; Pello Ramirezen zuzeneko emanalditxo bat, eta zuzendariekin solasaldia.

ABENDUAK 8, zapatua

10:30 **'Han edo Hemen, Zuk'** dokumentala.

11:00 **'Astelehena'** filma.

11:30 **'Soinujolearen Semea'* (Aurrestreinaldia).** Emanaldia areto handian egingo da.
* Gonbidapen bidez. Abenduaren 5etik aurrera jaso ahal izango dira, Irudienean.

12:30 **'Paddington2'.** Umeentzat filmea.

14:00 **'Agur, Etxebeste!'** filmaren making of-a.

16:00 **'Apodaka'.** Ganbara batean aurkitutako Super 8 grabatutako irudiekin egindako filma laburra. Proiektors Sormen Taldearen Abiapuntua.

16:20 **'Lope'** filma.

16:40 **'Dantza' dokumentala.** 'Dantza' dokumentalean oinarrituriko dokumental serie baten lehen atalaren aurkezpena.

17:00 **'Muga deitzen da pausoa'*.** Proiekzioaren ostean, zuzendariagaz solasaldia.

ABENDUAK 9, domeka

10:30 **'Margolaria'*.** Proiekzioaren ostean, zuzendariagaz solasaldia.

11:00 **'June'** filma.

11:30 **'Ane eta Peio, maitasun istorio bat piper artean' filmaren** aurkezpena.

12:30 **'Lou'** dokumentala.

14:00 **DEMAS.A.** Lehenengo aldiz euskarazko ikus-entzunezko rallyen arteko txapelketa.

ARGITALPENAK - NOBEDADEAK

EGILE NAFARREN EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA
1. liburukia. Erdi arotik errenazimentura eta erromantizismoa
2. liburukia. 1900etik 1975era arte
Asier Barandiaran Amarika (koordinatzailea)

12 € / bakoitza

NAVARRORUM
Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea
Erakusketako katalogoa

5 €

SAREAK EHOTZEN
TEJIENDO REDES
San Kristobal Fuerteko presoekin elkartasuna izan zuten emakumeak (1934-1945)

2. edizioa
Amaia Kowasch Velasco

15 €

MEATZARIAK GERRAN
MINEROS EN GUERRA
Erakusketako katalogoa
Karlismoaren Museoa

9 €

IRUDIAK
IMAGINARIO
Bizitza argazkiak. Nafarroa 1900-1950
Celia Martín Larumbe
Maite Pérez Larumbe

38 €

BÚSQUEDA DE IDENTIDAD
Nafarroako egungo poesia femeninoa (1975-2015)
Isabel Logroño Carrascosa

20 €
(gazteleraz)

ISIDORO FAGOAGA
El tenor olvidado
German Ereña Mínguez

20 €
(gazteleraz)

LA LUZ DE UN SUEÑO
El cine de Helena Taberna
Carlos Roldán Larreta

21 €
(gazteleraz)

Navas de Tolosa, 21
31002 Pamplona/Iruña

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

publicaciones.navarra.es

BERTSOLARITZA • MARKEL ONAINDIA

“Feminismotik etorri da bertsolaritzaren astinaldi berria, eta ez da kasualitatea”

Bertsozale Elkarteak gizartean egin duen azterketaz eta gogoetaz berba egingo dute Durangoko Azokan

Bertsozale Elkarteak azterketa soziologiko bat garatu du, aurrera begirako lana argitzen lagunduko diona. Horretaz mahai-inguru bat antolatu dute abenduaren 8rako (11:00etan, Areto nagusian), eta Igor Elortza izango da partaideetako bat. Izan ere, elkarteko zuzendaritza berriko kide da durangarra. Bestalde, Lankuk argitaratutako 'Buruz buru' liburuan ere ikusiko dugu azokan, hainbat sortzaileren artean. Joseba Sarrionandiak ipinitako gaiari erantzungo dio Elortzak.

Igor Elortza Aranoa
Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kidea
Durango | 1975

LEHIOR ELORRIAGA

Nondik sortu da azterketaren ideia?
Bertsozale Elkarteak egiten duen hirugarren ikerketa da. Lehena 1992an izan zen, bigarrena 2005ean, eta hirugarrena aurten. Arkaitz Zubirik zuzendu du, eta Xabier Aierdi ere egon da beragaz. 12-13 urterik behin elkarteak gogoeta estrategikoa egiten du, bere lan ildoak zehazteko, eta hori azterketen emaitzetan oinarritzen da. Durangoko Azokako solasaldia ere gogoeta prozesuan kokatzen da. Zubirik azterketa azalduko du, Jone Miren Hernandez EHUko ikerlariak genero berdintasunaren ikuspegitik landuko du, eta gero Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio eta hirurok egongo gara, elkarteko zuzendaritzaren izenean. Izan ere, Iñaki Murua aurtengo batzarra egin arte izan da lehendakari, eta han erabaki zen zuzendaritza eredua aldatzea, taldekoago bihurtzea.

Zer ikusteko balio izan dizue azterketa horrek?
Bertsolaritzak azken hiru-lau hamarkadetan gaurkotzea lortu badu, bere burua gizarte mugimendu lez antolatu duelako izan da. Bertsolaritza geroratzeko helburu bateratu bategaz; izan ere, bere garaian bertsolaritzak iraungo ote zuen kezka zegoen. Hori, garaiko ekarpen edo olatuei leku eginez; adibidez, ni 90eko hamarkadako belaunaldiko parte izan nintzen, Zubirik rockaren belaunaldia izendatzen duena. Horregaz batera, sozializazio gune batzuk kontuan hartuta: bertso eskolak, plaza, txapelketak, telebistako saioa... Zubirik dioena da fase bi bete direla, eta beste baten atarian gaudela.

Zuen belaunaldiak aldaketa ekarri zuen bertsogintzara. Beste aldaketa bat bizitzen ari gara?
Segurutik, rockaren belaunaldi kaletar hori izan da bertsolaritzaren azken astinaldia, exotikoa zena eta zentralitatea hartzen joan dena gauzatu arte. Badira urte batzuk hurrengo astinaldi baten zain geundena, eta ez da kasualitatea bertsolaritzaren astinaldi berri hori gizarteko beste olatu bategaz etortzea, feminismotik eta emakume bertsolariengandik. Horren lehen agerpen indartsua 2017ko txapelketan gertatu zen, eta zeresan handia eman zuen.

> *“Segurutik, rockaren belaunaldi kaletar hori izan da bertsolaritzaren azken astinaldia"*

Zer gai egon dira gogoetan?
Genero ikuspegia izan da gogoetako gai inportante bat. Eztabaida foroak edukitzea, sortzaileen baldintzez berba egitea, bertso eskolen ardura... Gure diskurtsogintza kultur arloan kokatzen indar gehiago egiteaz ere hausnartu da, adibidez. Kultura ulertzeko gure modutik: gizarte antolakuntzatik eta ez hainbeste gizarte merkantilizatutik, hizkuntza txiki batetik mundu globalizatu batean... Batzuek *euskal* etiketapean kokatzen gaituzte, eta garbi dago bertsolaritzaren geroa euskarari lotuta dagoela. Baina tradiziotik datorren arte adierazpide garaikide eta unibertsala garela aitortu behar diogu geure buruari. Eta, ekarpen ideologiko eta estetiko bat egiten dugunez, euskaraz eta Euskal Herritik, erantzukizuna ere badugu adierazpide hori hobetu, gaurkotu eta anizteko.

> *“Erantzukizuna ere badugu adierazpide hori hobetu, gaurkotu eta anizteko”*

Bertsozalea ez da entzule soila...
Izaera ludikoaz aparte, kritikotasuna bilatzen du bertsogintzak, eta, nire ustez, oso aberatsa da. Izan ere, batzuetan badirudi kontrajarri egiten direla ondo pasatzea eta gauzak kuestionatzea. Azterketak dio bertsozaleak gauza biak bilatzen dituela, eta interesgarria da.

50 URTE
KURUTZIAGA IKASTOLA
BIZITZEKO HEZI

Ezagutu gaitzazu!

GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA
Ikaslea ardatz
Euskara eta Euskal kultura
Eleaniztasuna
Genero berdintasuna
Aniztasuna
Natura

Bikain · MiVa Ikastola · Ikastolen elkartea · ibaizabal

BISITA GIDATUAK NOIZNAHI
Tel. 946200822
idazkaritza@kurutziagaikastola.eus
www.kurutziagaikastola.eus

· 0-18 urte bitarteko eskaintza
· Kirol eta aisialdi eskaintza zabala
· Jantokia: bertokoa, sasoikoa eta produktu ekologikoak

Askotariko jarduerak izango dira leku Kabi@n, teknologia eta eduki libreen gunean.

Erakusketak, hitzaldiak, eztabaiak eta tailerrak antolatu dituzte.

Sormena eta adimen artifiziala batuz, ekimen artistikoa sortu du Kabi@k

Landako Gunearen barruan izango du lekua Kabi@k, azken urteetako domoa utzita

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Teknologia eta eduki libreen gunea da Kabi@, kultura digitalaren eremuan sortutako proiektuak kalera hurbiltzeko plaza. Azken urteetan habia izan duen domoa utzita, aurten Landako Gunearen barruan lizango du lekua. "Deigarria zen domoa, Kabi@ri nolabaiteko izaera eman zion. Baina beste erreferentzialtasun bat ematen du barruan egoteak", azaldu du Kabi@-ko arduradun Gorka Juliok. "Proba egingo dugu, eta aztertu hemendik aurrerako bidea zein izango den".

Esperimentazioa eta sormena uztartzen dituen ekitaldi berezia hartuko du Kabi@k: 'Ni naiz?'

Erakusketak, eztabaidak, berbaldiak, tailerrak... askotariko jarduerak batzen ditu Kabi@-k. Baita esperimentazioa eta sormena ere; biak uztartzen dituen *Ni naiz?* ekimen artistikoa da horren isla. Ustaritz Beteluren zenbait olerki sare neuronal batetik pasatu ditu Mikel Azkarate informatikariak, eta sareak artista donostiarraren olerkigintza ere ikasi du, nolabait. Bada, horren ostean, sare neuronalak sortutako olerkiak ezagutzeko aukera egongo da Kabi@n, Juliok azaldu duenez. Esperientzia honek sortu dizkien sentsazioak ezagutzeko aukera ere egongo da, bi protagonisten ahotik. Dena den, egun osoko jarduera da prestatutakoa: ekimena azaltzeko, erakusketa egingo dute, eta esperientzia honen harira Beteluk sortutako eskultura ere erakutsiko dute.

Teknologia hezkuntzaren esparrura eramanda zabalduko ditu ateak Kabi@k Ikasleen Egunean. Teknologia erabili barik, konputagailuen hizkuntzan komunikatzen ikasiko dute Jolasmatikaren bidez goizeko saioan. Arratsaldean, honako premisari helduko diote: *Teknologia hezkuntza formalean/informalean, zertan gabiltza?*.

Txikipedia aurkeztuko du Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak, munduan "erreferente" dena

Hainbat proiektu digital batuko ditu Kabi@k. Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak Txikipedia aurkeztuko du, "munduan erreferente bihurtu dena", Julioren berbetan; era berean, Game Erauntsian euskaratutako bideo-joko sorta eta *itsulapiko.eus* proiektua aurkeztuko dituzte, besteak beste. Julioren ustean, "burujabetza teknologikoa" da erronka. "Jabe eta burujabe izan behar gara, gure berezitasunetik mundura zabaldu behar gara", dio.

KABI@ DIGITALAREN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

11:00 IKASLE EGUNA. Heldu programazioari! Konputagailuen lengoaian komunikatzen.

16:00 Teknologia hezkuntza formalean / informalean, zertan gabiltza?
Egitaraua:
-16:00: Hezkuntza errealitatea teknologiarekiko: irakasleen ikuspuntua - Leire Badiola, Alvaro Perez
- 17:00: Erronken bidez lanean arlo sozialean - Maite Lizartza, Unai Oiartzabal
- 17:30: Hirikilabs - Manex Izagirre
-18:00: Gasteizkada - Karmele Garcia
-18:30: Teknologia, zergatik eta zertarako? - Diana Franco

ABENDUAK 6, eguena

11:00 Gamer Gela
- 11:00: 2018an itzulitako jolasen aurkezpena
- Kanaldudegaz elkarlanean telebistako 'Zuzenean zure esku' zuzeneko emankizuna grabatu eta emititu.
- Jolasak probatzeko aukera

ABENDUAK 7, barikua

11:00 Wikipedia eta kultura, eskutik.
11:00 Txikipedia euskal kultura haur eta gaztetxoen neurrira
12:30 Euskal literaturaren armiarma sarea
16:00 Euskal kultura wikitzen:

ABENDUAK 8, zapatua

11:00 Enseiukarrean aldizkariaren digitalizazio proiektuaren aurkezpena

11:30 Kultur Sharea atariaren aurkezpena. Kultur Sharea sorkuntzari eta kulturari buruzko informazioa.

12:00 Artizarra, ikertzaile euskaldunen sare soziala. UEUk 'Artizarra.eus' plataforma berria sareratu du eta proiektu honen aurkezpena egingo dute.

12:30 Teknologia berriak irisgarritasunaren alde. Proiektuaren abiapuntua Mauro Saravia argazkilariaren "Emeek Emana" erakusketa da.

13:00 Izarkomeko kideen sare sozialaren aurkezpena.

13:30 'Itsulapikoa.eus' herri finantziaziorako tresna.
'Itsulapikoa.eus' herri finantziaziorako tresnaren aurkezpena.

16:00 Kolore Anitzak. Obraren aurkezpena

ABENDUAK 9, domeka

12:00 'Ni naiz!?' Inteligentzia artifizialak eta giza inteligentziaren arteko elkarlan posibleak esploratzeko ekimen artistikoa da

"Gauzak beste modu batera egiteko gogoz" jarriko du postua Durangaldeko Pott Produkzioak ekoiztetxeak, lehenbizikoz

Landako Guneko Goienkalea 47an egongo da standa, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek, State Alerta eta Hartz taldeen diskoekin, besteak beste

State Alerta abadiñarrak dira.

MUSIKA • **ARITZ MALDONADO**

Elkarlana eta autoekoizpena dira Pott Produkzioak ekoiztetxearen ezaugarrietako bi. Autoekoizpena, zigilua osatzen duten taldeak burujabeak direlako, erabakiak euren kabuz hartzeko. "Inoiz ez dugu gainontzeko diskoetxeak bezalakoak izatea gura izan", dio Gorka Bidaurrazaga Pott ekoiztetxeko arduradunak. "Elkarlana bultzatu gura dugu geure artean". Elkarlan horren funtsa txikiagoak diren taldeen ikusgarritasuna handitzea da. Horrela, Goienkalea 47ko postuan hainbat lan topatu ahalko dira. Alde batetik, Pott Produkzioakeko familiakide diren State Alerta, Hartz (azpeitiarrak) eta Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldeen diskoak erosi ahalko dira. Bestetik, Dekot, Egurra eta Kitto! eta Nomadak taldeen azken lanak eskuratu ahalko dira. Dekot jatabetarrek *Dema* lana aurkeztuko dute; Nomadak, ostera, bergararrak dira; rock doinuak jorratzen dituzte. Egurra eta Kitto! azpeitiarrek 10 urteko ibilbidea ospatu gura dute euren lan berriagaz.Hemezortzi abestiko bilduma izango da *Hamar Urte* lana; hamar kanta berriak izango dira, eta beste zortziak, "kanta bereziak". "Beste eredu baten alde lan egin gura dugu, elkarlanaren ereduaren alde" azaldu du Bidaurrazagak.

Egurra ta Kitto!, Dekot eta Nomadak taldeen lan berriak ere eskainiko dituzte euren postuan

Zuzeneko aurkezpenak

Beste hainbat artistek bezala, Durangoko Azokako Ahotsenean erakutsiko dituzte lan berrietako abestiak postu honetako lagunek. Horrela, abenduaren 6an, 16:20an, Nomadak taldeak bere lan berria aurkeztuko du. Egun bat geroago, abenduaren 7an, Dekot taldearen txanda izango da. Goizeko 11:00etan arituko dira.



AHOTSENEA SORTZAILEEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

AHOTSENEA ZUZENEKOAK

11:00 AKABU 'Erlojuari begira'. Galdakaoko Akabu taldearen bigarren diskoa.

11:40 DUNNE 'Argi eza'. Azkoitiko Stoner/ Hardcore hirukotea.

12:00 IKASLE EGUNA. Musika elektronikoaren ekoizpena.

12:20 MUSHKUM 'Nire totem animalia'. Mushkumek bere bigarren lana aurkeztuko du

13:00 JOSU BERGARA 'Asunak'. Josu Bergara kantautoreak 'Asunak' bere azken diskoa aurkeztuko du.

13:40 BROKEN BROTHERS BRASS BAND 'Txertaketa'.

14:20 POLYBIUS 'Polybius'. Polybius taldearen aurreneko diskoaren aurkezpen txiki bat.

15:00 EGURRA TA KITTO 'Hamar urte'.

15:40 ENERITZ FURYAK 'Zaldi zuria / Maskara'

16:20 GATOM 'Binomio' / 'Bueltan gatoz'.

17:00 IRAZI 'Orratzak' Bigarren diskoa aurkeztuko du.

17:40 NIZURI TAZUNERI '7A7PI' Bigarren diskoaren aurkezpena.

18:20 AZALERA 'Azalera'. Diskoaren aurkezpena.

19:00 MIKEL URAKEN 'Izaki bizidun berriak'.

19:40 MADELEINE 'Su hura'

AHOTSENEA SOLASALDIAK

11:00 IKASLE EGUNA. Gaur egungo testuak. Idazketari eta irakurketari buruz bideratutako tailerra.

13:00 JASONE OSORO eta JOSEVISKY 'Ihes' (Eskularru beltzak)

17:00 ARITZ GORROTXATEGI 'Ahazten diren gauzak'. Egileak ipuin bildumaren nondik norakoa azalduko du.

17:30 KARLOS LINAZASORO 'Lurra bere erro gorrira'

18:00 THIERRY BISCARY 'Manez eta kobreak'. Manez eta Kobreak diskoa eta proiektuaren aurkezpena.

18:30 JOSEBA TAPIA 'Zorrotzako portuan aldarrika'.

19:00 ENTZUN! aldizkaria.

ABENDUAK 6, eguena

AHOTSENEA ZUZENEKOAK

11:00 IZAKI GARDENAK 'Dena oskol'. 'Dena oskol' izeneko disko berriaren aurkezpena.

11:40 LARREGI 'Loreak desertuan' gure estudioko 4. lanaren aurkezpena.

12:20 DIENTES DE LUNA

13:00 MARKOS UNTZETA & ESKU HUTSIK 'Eguzki gorri bat'

13:40 ANITA PARKER 'Anita Parker 2'

14:20 XABI BANDINI 'Begibakar'. Bakarlari moduan argitaratu duen lehenego lanaren aurkezpena.

15:00 MONTAUK 'Geruzak'

15:40 THE POTES 'Ametsak dira egi erabat bete aurretik'

16:20 NOMADAK 'Hasieratik +'

17:00 JON GURRUTXAGA 'Kateak'

17:40 EHko TRIKITIXA ELKARTEA 'Haziak II'

18:20 ZIZEL 'Serendipia'. Aurkezpena.

19:00 ANEGURIA 'Percebe dana edo ezebez'

19:40 RO 'Aikor'

AHOTSENEA SOLASALDIAK

11:00 ALAINE AGIRRE 'Kamisoi zuri zetazkoa'.Alaine Agirrek idatzi eta Sara Morantek ilustratu duen liburu bitxiaren aurkezpena.

11:30 EHAZE Antzerki Elkartea (Hainbat Autore) 'Euskal antzerki (garaikide)aren historia bat' 'Ekin eta joka: azken ikerketak euskal teatroaz' saiakera liburuaren aurkezpena.

12:00 AGOSTI XAHO 'Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran'.

12:30 UGAITZ AGIRRE 'Tximeletak bizkarrean'. 'Tximeletak bizkarrean' lanaren aurkezpena.

13:00 Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik INFOGRAFIA' (Ane Labaka, Miren Artetxe, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegi, Mariñe Arbeo, Malen Amenabar)

17:00 IÑIGO ARANBARRI 'Munduko tokirik ederrena'

17:30 HARKAITZ CANO 'Fakirraren ahotsa'

18:00 JAKOBA ERREKONDO eta ANTTON OLARIAGA 'Landareak lantzen' 2019ko agenda-liburu berriaren aurkezpena

18:30 ENEKO AIZPURUA URTEAGA 'Euskal haluzinazio bat'

19:00 IBAN ZALDUA 'Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak' liburuaren aurkezpena.

ABENDUAK 7, barikua

AHOTSENEA ZUZENEKOAK

11:00 DEKOT 'Demak'

11:30 ORDAGO FOLK 'Bidaian'. Kontzertua.

12:20 "LEOK'K 'Infinituari segika'. Hirugarren diskoaren aurkezpena.

13:00 FETITXE 'Polyhedron'. Lanaren aurkezpena.

13:40 TOOTH '_amaierarik ez...'

14:20 MADDI 'Ying Yang'. Lanaren aurkezpena.

15:00 ERTZAK 'Gaur'.

15:40 NERABE 'Toki-on'

16:20 IKER LAUROBA 'Udazkena'. Hirugarren diskoaren aurkezpena.

17:00 BAOBABS WILL DESTROY YOUR PLANET 'Argiaren abiadura'.

17:40 HIBAI 'Agian bihar' Lan berriaren aurkezpen kontzertua.

18:20 HEZURBELTZAK 'Hezurbeltzak'

19:00 KOIU 'Noiz arte?' Diskoaren aurkezpena.

19:40 ROLAN GARCÉS 'Rolan & Loop Abestiak'

AHOTSENEA SOLASALDIAK

11:00 PAKO ARISTI 'Rosa itzuli da' nobelaren aurkezpena.

11:30 OIER GUILLAN 'Zauri Bolodia' liburuaren aurkezpena.

12:00 HEKTOR ORTEGA 'Tretatxu, Lapurren gobernadorea'

12:30 ASISKO URMETENA 'Aztihitza'

13:00 'Buruz buru' (Hainbat Autore)

17:00 YOSEBA PEÑA 'Hariak' nobelaren aurkezpena.

17:30 HEGATS aldizkaria 56. alea. Aldizkariaren aurkezpena.

18:00 XABIER ETXEBERRIA 'Berriro itzuliko balitz' liburuaren aurkezpena.

18:30 GARBIÑE UBEDA 'Sasieskola' liburuaren aurkezpena.

19:00 TXAKUR GORRIA 'Kaiera'

ABENDUAK 8, zapatua

AHOTSENEA ZUZENEKOAK

11:00 GATIBU 'Azken indioak'

11:40 NOGEN 'Liv Til Døden'

12:20 TXAPELPUNK 'Zorionak nire partez...' Diskoaren aurkezpena.

12:20 BAD SOUND 'Birsortzen' Diskoaren aurkezpena.

13:40 HESIAN 'Hasiera'

14:20 ERABATERA 'Antipodetan'

15:00 ISUO eta KEZMAN 'Bihar akaso'

15:40 TRISTTAN MOURGUY eta HOREBA 'Dual [2/2]: beharrezkoa da... hutsa'. Diskoaren aurkezpena.

16:20 TXOST! 'Erreferak esperantza'

17:00 BIDELAPURRAK 'Gorriak eta bi'

17:40 HARA! 'Errotak'

18:20 DAMA 'Dama' Hirugarren diskoaren aurkezpena.

19:00 McONAK 'Gure naufragioak'

19:40 LEIHOTIKAN 'Non zaude?'

AHOTSENEA SOLASALDIAK

11:00 JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN 'Euskal Herria, beti!'

11:30 AINARA MAIA URROZ eta IÑAKI MARTIARENA 'Muxuak'

12:00 GOTZON BARANDIARAN 'Hitzen ahairea'

12:30 PELLO REPARAZ 'Baloreak'

13:00 MIKEL SANTOS BELATZ 'Gerezi Garaia'.

17:00 IDURRE ESKISABEL 'Goseak Janak'. Liburuaren aurkezpena.

17:30 DANI FANO 'Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak'

18:00 Hainbat egile 'Gasteizko gaztetxea 30 urte'

18:30 UNAI ITURRIAGA eta ALEX SAN VICENTE 'Haur besoetakoa. Paristik datorren artista'

19:00 KATIXA AGIRRE 'Amek ez dute'

ABENDUAK 9, domeka

11:00 BERÇAITS

11:40 MAIRU DANTZA

12:20 HAXOTZ 'H'

13:00 ANTTON LARRANDABURU eta BITXILOREAK (Izenbururik gabeko diskoa) Lehen diskoaren aurkezpena.

13:40 INUN 'Aingurak'

14:20 PANTXIS BIDART & ALEXIS THERAIN '14'

15:00 IBAI MARIN 'Bidean naiz' Diskoaren aurkezpena.

15:40 GUDA DANTZA 'Guda dantza'

16:20 BIHOZKADA 'Pirata lagun II'

17:00 MADDI ZUBELDIA eta H-EDEN 'Zimurrak baleki'

17:40 PASSEPARTOUT 'Sinergia' Diskoaren aurkezpena.

18:20 GORPUZKINGZ

19:00 INDIDXABAK 'Indidxabak'. Diskoaren aurkezpena.

19:40 ELORTEGI ANAIAK 'Basque culinary rokanrol'

AHOTSENEA SOLASALDIAK

11:00 ANE LABAKA eta MALEN AMENABAR 'Ezpainetakoa'

11:30 EZTENA kultur elkartea 'Aitaren larrua' (Tripak kolektiboa), 'Zapatak' (Joxemari Carrere), 'Ametsen faktoria' (J. M. Urrutia 'Txotxe')

12:00 EMAGIN ELKARTEA 'Ezagutzaren matazak'

12:30 JOANES URKIXO 'Ekaitza urrun'

13:00 EDORTA JIMENEZ 'Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua'. Eleberria aurkeztuko du.

17:00 JON ARRETXE 'Ez Erran Deus'

18:30 AFONIAK - Xabier Erkizia , Arantxa Iturbe, Luca Rullo

"Ilusio handiz hartu dugu Txotxek idatzitako 'Ametsen faktoria' antzezlana liburura eramateko ideia"

Eztena jaialdiak sei antzezlan argitaratu ditu, eta horietako bat aurten hil berri den Jose Martin Urrutia 'Txotxe'-k idatzitakoa da, Karrika taldearena

Karrikak 2008an taularatu zuen orain liburuan datorren antzezlana.

ANTZERKIA • MARKEL ONAINDIA

Oreretan egiten den Eztena antzerki jaialdiko antolakuntzak sei liburu aurkeztuko ditu Durangoko Azokan, eta horietako bat Jose Martin Urrutia *Txotxe*k idatzitako *Ametsen faktoria* lana izango da. Ahotsenean emago dute proiektuaren berri, abenduaren 9an, 11:30ean. "Egia esan, ilusio handiz hartu dugu *Txotxe*k idatzitako *Ametsen faktoria* antzezlana liburura eramateko ideia", azaldu du Karrika antzerki taldeko Maite Lopezek. Bera eta Uxuri Gallastegi antzezleak egongo dira aurkezpenean, Eztenakoekin batera.

Urte berezian dator liburuaren argitalpena. Otsailaren 4an utzi gintuen *Txotxe*k, Karrikaren sortzaileak. "*Txotxe*ren obra oparoa da, baina ez dugu inoiz Karrikaren lanik publikatu. Oso ondo hartu dugu, eta pentsarazi egin digu, hor daukagun material guztiagaz zerbait egin beharko dugula egunen batean", dio Lopezek.

Izan ere, Durangon urteetako lana egin zuen *Txotxe*k antzerkigintzan. 1986tik aurrera, Kurutziaga ikastolako antzerki-proiektu aitzindaria sortu zuen eskola orduetan, urterik urte estreinaldi berri bat eskainiz, guztira 30etik gora. Gero, 1998an, Karrika sortu zuen gazte batzuekin batera.

2008an taularatua

2008an taularatu zuten *Ametsen faktoria*, Karrika taldearen 10. urteurrena ospatzeko. "Antzerkiari buruz berba egiten du, ametsen faktoria den Karrikari buruz, aretoari buruz... Guri benetan gertatutako pasarte batzuk daude, taldearen imajinarioan geratu direnak...", azaldu du Maite Lopezek.

Lopez: "Txotxeren obra oparoa da, baina ez dugu inoiz Karrikaren lanik publikatu"

Eztenakoen asmoa jaialdian taularatutako lanak argitaratzea izan da. Karrikak *Zapoi* antzezlana aurkeztu zuen Oreretan, baina gurago izan dute *Ametsen faktoria* eraman liburura. Lopezek kontatu duenez, *Zapoi* obran *Medea* laneko zati batzuk eta Karrikako kideek sortutako beste batzuk ere badaude, *Txotxe*renak aparte. Libururako aukeratutakoa Elgoibarko irakaslearena da osorik, eta urteurrenagaz lotura edukitzea ere gakoa izan da hautaketarako. Urtemuga "puntu garrantzitsu" bat izan zen taldearentzat, Lopezen esanetan.

'Txotxe'-ri aitortza

Oier Guillan idazlea da Eztena jaialdiko arduradunetako bat, eta lana bildumarako zergatik hautatu duten azaldu du. "Karrikaren lana erakusteko modu bat izateaz aparte, *Txotxe*ren lana aldarrikatzeko eta aitortzeko behar bat sentitzen genuen. Amateur berbaren atzean konnotazio negatibo asko dago. Baina estetikoki eta teatralki lan handiak egiten dituen jendea dago, eta horietako bat da Karrika. *Txotxe*

Guillan: "Txotxeren lana aldarrikatzeko eta aitortzeko behar bat sentitzen genuen"

Guillan: "Gure esperantza da lehen pauso bat izatea, Txotxeren lana ikusgarri egiteko"

erreferentzia bat izan da beti guretzat", nabarmendu du.

Guillanek dio pozik daudela liburua kaleratu izanagatik. "Gure esperantza da lehen pauso bat izatea, *Txotxe*k utzitako ondare itzela erregistratzeko, transmititzeko eta ikusgarri egiteko". Liburuen argitalpenagaz, antzerki jaialdiaren filosofia zabaltzeko beste pauso bat eman gura dute. "Eztena jaialdia beti saiatu da beste era bateko proiektuak ikustarazten: bestelako dramaturgiak, esperimentalak, taldearen kudeaketari dagokionez eredu desberdinak...". *Ametsen faktoriaz* aparte, hurrengo antzezlanak ere eskuragarri egongo dira: *Zapatak*, *Aitaren larrua*, *Abandónate mucho*, *Ella y él: ficciones* eta *Tres pedradas*.

Hainbat tailerretan parte hartzeko aukera izaten dute neska-mutilek Saguganbaran.

Ahozkotasuna indartu guran, ipuin maratoia egingo dute Saguganbaran

Poropopoesia tailerragaz zabalduko ditu ateak haur eta gaztetxoentzako txokoak, sormena eta irakurzaletasuna sustatzeko hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera eskainiz

SAGUGANBARA • AITZIBER BASAURI

Kulturaren transmisioan berezko garrantzia du ahozkotasunak. Kulturarekiko edo literaturarekiko interesa irakurriz bakarrik ez, ahoz ere transmititzen da. Bada, hori indartzeko eta nabarmentzeko, ipuin maratoia antolatu dute, lehenengoz, Saguganbaran. Abenduaren 9an, bost ipuin kontalari egongo dira: Lur Korta, Dorleta Kortazar, Maite Franco, Mireia Delgado eta Aitor Martinez Vinagret.

Euskal Herriko herrietan ipuinak kontatzen dabiltzan bost lagun horien ahotan, ipuinek bizia hartuko dute. "Ipuin kontalariek ez dute libururik argitaratzen askotan, ez dute lekurik izan gurean orain arte. Hala ere, haur literaturari ekarpen bat egiten diotela ulertuta, eurek ere leku bat izatea gura izan dugu", dio Itsaso Gangoitiak, Saguganbarako arduradunak.

Poesia hizpide

Poropopoesia tailerragaz zabalduko ditu ateak Saguganbarak abenduaren 5ean, Ikasleen Egunean. Saroa Bikandik eta Peru Magdalenak gidatuta, askotariko autoreak eta poesiak ezagutuko dituzte 10-12 urte arteko gaztetxoek. Legutiotik eta Karrantzatik talde bi etorriko dira, eta, jolasa erabilita, poesia idatzi eta landuko dute. Haur eta gazteen irakurzaletasuna sustatu, eta poesiarekiko plazerra ezagutzea eta bizitzea da helburua.

Adin tarte horretako gazteengana heltzea zaila izaten da eta Ikasle Eguna horretarako aproposa dela uste du Gangoitiak. "Literaturaren eta musikaren bidez, zaila egiten zaigu 10-13 adin tarte horretara heltzea. Saguganbara oso umeentzat ikusten dute, eta beste guneetan ere zaila egiten zaie eurentzako moduko zerbait topatzea", gaineratu du. "Gazte horiengana nola heldu, horixe da gune guztion eta Gerediagaren kezka. Ikasle Egunak aukera ematen digu gazteak Azokara etor daitezen", amaitu du.

Irakurzaletasuna eta sormena sustatzeko, hainbat tailer antolatu dituzte Saguganbaran

Sormena eta irakurzaletasuna sustatzeko bestelako tailerrak ere antolatu dituzte: *Bertso jasa bat-bateko jolasa, Liburu bat munduan* eta *Liburu Baby Kluba* edo esperimentatzeko Kimika laborategia. Bestalde, Bizipoza elkartearen eskutik *Keinu bakoitza opari bikoitza* gabon postal sormen tailerra ere egongo da. *Irria* (Irrien Lagunak) antzezlana eta *Loa* (Karrika) ipuin antzeztuak osatuko dute eskaintza, besteak beste.

SAGUGANBARA TXIKI ETA HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

ARETO TXIKIA

10:30 IKASLE EGUNA. Poropopoesia. Poesiagaz jolastuko gara sormen prozesuak irekiz.

19:00 Mari Txipi eta amatxo. Liburuaren aurkezpena. Familia osoarentzat. Pailazoak eta Jose Mari Carrere.

ARETO NAGUSIA

17:30 Musua - Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Familia osoarentzat. Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek 'Musua' disko-liburua aurkeztuko dute Leire Bilbaogaz batera.

ABENDUAK 6, eguena

ARETO TXIKIA

11:30 Jolas tailerra. 2-5 urte bitarteko haur eta familientzat.

ARETO NAGUSIA

11:00 Zupankapaloak Jokin Mitxelena ilustratzaileagaz batera, liburuaren aurkezpena.

12:00 Torlojuak. 7 urtetik aurrera.

13:00 Martzelo itsua. 10 urte.

15:00 Kimikako laborategian. 4-8 urte Zientzia-esperimentuak.

16:00 'Bizenta txiki' eta 'Mari Xor'. 5-12 urte. Yolanda Arrieta idazleak 'Bizenta Txiki' eta 'Mari Xor' liburuen kontateka egingo du.

17:00 'Cosimoren Katiuskak', 6 urtetik aurrera

18:00 Jolas hezitzaileen tailerra. 3-8 urtea. Euskarazko jokoak ezagutu eta horiekin jolasteko.

ABENDUAK 7, barikua

ARETO TXIKIA

15:00 Liburu bat, mundu bat. 4-6 urte

16:00 Liburu baby kluba. 0-3 urte.

ARETO NAGUSIA

11:00 'Emileren desabenturak'. 8-12 urte. Idazleak kapitulu bat edo bi irakurri ahala, ilustratzaileak marrazkiak egingo ditu.

12:00 'Satorjator Dantzan'. 2-8 urte.

13:00 Ipuin kontaketa: 'Mamaiako'. 6 urtetik aurrera. Ipuin kontaketa, musika zuzenean jokatuz.

15:00 Ipuin kontaketa: "Miru, nor zara?". 2-7 urte.

16:00 Bertso jasa bat-bateko jolasa. 8-12 urte.

17:00 'Irria' antzerkia. Familia osoarentzat.

18:00 Ipuin kontaketa: 'Badator Sorgina Txirulina!' 3-8 urte.

19:00 Keinu bakoitza, opari bikoitza. Bizipoza Elkartean boluntario jardun edo diruz laguntzeko kanpainarako gabon-postal sormen tailerra eta aurkezpena.

ABENDUAK 8, zapatua

ARETO TXIKIA

13:00 Poza! 'Poza' liburuaren aurkezpena. Uxue Alberdi eta Eider Eibar.

ARETO NAGUSIA

11:00 'Txori txikia eta krokodiloa'. 4 eta 10 urte bitartean.

12:00 'Kokoak, marrazkiei kosk!' Familia osoarentzat. 'kokoak.eus' webguneko pertsonaien aurkezpena.

15:00 'Herensugeen itzulera'. 8-12 urte, ipuin ilustratua.

16:00 'Ni neu galtzeta'. 3-10 urte. Ipuinaren aurkezpen laburra.

17:00 'Arbi' liburu interaktiboa. 3-9 urte bitartean. Errealitate areagotuan marrazteko tailerra.

18:00 'Loa' antzerkia. 3-6 urte

19:00 Ipuin kontaketa: 'Non dago Txirlo?' 3-6 urte.

ABENDUAK 9, domeka

ARETO NAGUSIA

11:00 Ipuin maratoia: Lur Korta Familia osoarentzat. Lur Korta ipuin kontalariak "Aurorita beti polita" ipuin kontaketa antzeztua egingo du.

12:00 Ipuin maratoia: Dorleta Kortazar. Familia osoarentzat. 'Heldu eskutik' ipuin kontaketa egingo du Dorleta Kortazar ipuin kontalariak.

13:00 Ipuin maratoia: Maite Franko. Ipuin maratoia: Maite Franko

16:00 Ipuin Maratoia: Mireia Delgado. 5 urtetik aurrera

17:00 Ipuin maratoia: Aitor Martinez Vinagret. Familia osoarentzat

18:00 Orri-markatzaileen tailerra. 6 urtetik aurrera. Zenbait teknika erabiliz, orri-markatzaileak diseinatu eta egin.

53. DURANGOKO AZOKA
2018ko abenduaren 5etik 9ra
DA!

EROSKI
Abadiño zurekin

Euskal tradizioaren eta abangoardiaren arteko mugak lausotzen saiatzen da 'Baserri' dantza ikuskizuna

Gasteizko Larrua Proiektuak egindako obra abenduaren 7an erakutsiko dute, Durangoko San Agustin kultur guneko oholtza gainean

Euren ikuskizunetan estilo eta diziplina anitzetako elementuak erabiltzen dituzte.



Formakuntza artistiko zabala duten dantzariek osatzen dute Larrua Proiektua.

DANTZA IKUSKIZUNA • J.D.

Baserri munduaren eta bertan bizi diren familien inguruan diharduen dantza ikuskizuna da *Baserri*. Gasteizko Larrua Proiektuak egindako lana abenduaren 7an egongo da ikusgai, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Honela azaltzen dute antzerki taldekoek *Baserri* ikuskizunaren muina. "Historian zehar, euskaldunak estuki lotuta egon dira etxera. Bizileku soil bat baino gehiago esan gura du. Gorde beharreko espazio sakratu bat zen etxea. Abiapuntu horretatik hasten da *Baserri* ikuskizuna".

Hortxe sortzen da, hain zuzen, gatazka. Baserriko semerik zaharrenak baserria utzi gura du, beste abentura batzuetan zentratzeko, baina bere arreba, etxekoandrea, erabaki horren kontra dago eta pisu handia du familian. "Euskal kulturatik egindako bidaia bat da eta oso errotuta dauden ohiturak berrasmatzen saiatzen gara. Ikuskizunak, zelanbait, tradizioaren eta abangoardiaren arteko mugak lausotzen ditu", azaldu dute.

Larrua Proiektua

Dantza ikuskizuneko koreografiak Jordi Vilasecak (Bartzelona, 1982) egin ditu. Besteak beste, Amsterdameko Henny Junniens Fundazioan egin zuen bere formakuntza artistikoa. 2014an Larrua Proiektua abiatu zuen beste kide batzuekin batera, eta elkarlanean esperimentatzen hasi ziren. Estilo eta diziplina anitzak (Break dance, dantza garaikidea…) uztartzen dituzte euren proiektuetan. Estatuan ez ezik, Erdialdeko Amerikan eta Frantzian ere ibili izan dira.

SZENATOKIA ARTE ESZENIKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

11:00 IKASLE EGUNA. 'Antzokia zirrikituz zirrikitu'
Antzerkia eta antzokia barrutik eta kanpotik ezagutzeko aukera.

ABENDUAK 6, eguena

15:55 Txarriboda. Prezioa: 10 €

ABENDUAK 7, barikua

16:05 Baserri. Sarrera: 8 €

ABENDUAK 8, zapatua

16:12 Tomiris. Sarrera: doan

16:18 Agur eta Dolore. Sarrera: doan

16:21 Schrodinger-en katua
Sarrera: doan

ABENDUAK 9, domeka

16:26 Inondik inora. Sarrera: 4€

'Inondik inora', arauen eta desobedientziaren arteko sokan balantzan

Seme-alaben heziketan sortzen diren sentimendu kontraesankorrak bistaratzen ditu umoreagaz eta "erotasun puntu bategaz" jantzitako antzezlanak

ANTZERKIA • JOSEBA DERTEANO

Gurasoek zuzen jokatzen duten seme-alabak gura dituzte, esanekoak eta zintzoak direnak. Baina, aldi berean, burujabe gura dituzte, ezarritako eredua ukitu lotsagabe bategaz ezbaian jarriko dutenak. Lotuta baina aske, aske baina lotuta. Dikotomia hori azaleratzen du *Inondik inora* antzezlanak, postari batzuen begietatik. Familia guztiari bideratutako proposamena abenduaren 9an eskainiko dute, San Agustin kultur gunean, 18:00etan.

Patricia Urrutia (Bilbo, 1977) antzezlaneko zuzendari eta aktoreak postarien eguneroko lanean aurkitu du antzezlana kokatzeko marko aproposa. "Mundu ordenatu eta arautu baten oso adibide ona da. Gure planteamendurako, horrelako mundu bat behar genuen, gero apurtzeko, hankaz gora jartzeko", azaldu du. Egun batean kaxa berezi bat helduko da postetxera, elementu kurioso bat gordetzen duena, eta postariak bidegurutze batean jarriko ditu: arauak jarraitu ala senari men egin. Egoerak "umorez eta erotasun puntu batez" erakusten dira.

Silverstein-en poematik

Shel Silverstein-en poema bilduma batean du sorburua antzezlanak. Urrutiak Kolonbian bizi zela ezagutu zuen Silverstein-en poesia, orain 15 bat urte. "Haurrek bizi dituzten egoeren gainean idatzi zuen, baina ez modu hezitzaile batean. Berekoikeria, jeloskortasuna edo bestelako sentimenduak hartu eta umorez aurkezten ditu", adierazi du. Poema batean egin ezin dituenak gogoratzen dizkio umeari (*Listen to the mustn'ts, child / Listen to the dont's…*), baina mezua erabat aldatzen du azken esaldian: *Anything can happen, child / Anything can be*. (Edozer gertatu daiteke, ume / Dena da posible) Kontraesan horregaz jolasten dira antzezlanean, eta Silverstein-en antzera, ikusentzuleei uzten diete nork bere ondorioak ateratzen. "Nire ustez, garrantzitsua zen irakaspenik ez uztea. Egoera bat umorearen bidez azaldu eta gero norberak atera ditzala ondorioak", dio Urrutiak.

Shel Silverstein poeta amerikarraren poema bilduma batean du sorburua antzezlanak

"Nire ustez, garrantzitsua zen irakaspenik ez uztea. Norberak atera ditzala ondorioak"

Inondik Inora antzezlana Zubi proiektuaren irabazleetako bat izan da aurten eta laguntza horri esker gorpuztu da.

Postariek elementu bitxi bat dakarren kaxa bat jasoko dute.

Ez da umorerik falta, ezta "erotasun puntu bat" ere.

SAN ANTONIO: etorkizuneko hazia ereiten!

Gizarteak, eta bere baitan, hezkuntzak, garapen izugarria izan du azken hamarkadan. Beste teoria askoren artean, 1983an Howard Gardnerrek inteligentzia anitzen teoria proposatu zuen. Howardek informazioa prozesatzeko beharrezkoa den gaitasun biologiko eta psikologikotzat ulertzen zuen inteligentzia. Gaitasun edo makinaria hori arazoak konpondu edota arazoak planteatzen duen egoerari aurre egiteko produktuak sortu behar direnean jartzen dela martxan uste zuen berak.

Gaur egun eduki hutsak ebaluatu beharrean gaitasunetan ebaluatzen hasi gara eta San Antonio ikastetxean gure ikasleek makinaria hori martxan jartzeko egoerak sortzen ditugu. Hizkuntza komunikaziorako inteligentzia da ikastetxean lantzen ditugun gaitasunetako bat. Inteligentzia horren garapenak, irudimena eta sormena aktibatzeaz gain, adimena suspertu, pentsamendua arindu, ulermena eta ortografia hobetu eta esperientzia eta interes berriak zabaltzeko aukera ematen du.

Bost dira ikastetxean lantzen ditugun hizkuntzak. Euskara eskolako ardatza da, ingelesa Haur Hezkuntzatik hasita, gaztelania Lehen Hezkuntzatik hasita ikasgai lez eta alemana eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hautazko ikasgai lez. Bost hizkuntza hauek era bateratuan landu eta transferentziek eskaintzen duten aberastasuna aprobetxatzeko asmoz hizkuntzak era bateratu batean lantzen hasi ginen San Antonio ikastetxean duela urte batzuk. Hizkuntza bakoitzean egiten genituen ekintzak idatziz jaso eta jakintzak transferitu eta errepikakor ez bihurtzea genuen helburu. Irakurketa plan bat idazteari ekin genion ondoren. Asko dira irakurriz eskuratzen ditugun aberastasunak. Lehen aipatutako makinaria guztia jartzen dugu martxan irakurtzen gaudenean edota norbait irakurtzen entzuten dugunean eta horren aldeko apustu garbia egiten dugu gure ikastetxean.

Gaur egun Hizkuntza Proiektuan sartuta gaude buru-belarri. Egungo egoeraren diagnosia egin eta ikastetxeko beharrak aztertu ostean, datozen urteetarako helburu berriak adosten ari gara. Gizartea etengabe ari da aldatzen eta berarekin batera aldatzen doaz erronkei arrakastaz erantzuteko beharrezkoak diren bertuteak. Egoera horiei arrakastaz erantzungo dien ikasleak prestatzea da gure helburu nagusia eta etengabeko hobekuntzan sinisten dugu.

Ione Pagonabarraga Urionagüena
Aleman Departamentua

Balbino Garitaonandia 3 · 48200 DURANGO · Bizkaia
Tel.: 94 681 67 76 · Fax: 94 681 41 61 · ikastetxea@sanantonio.eus
www.sanantonio.eus

HAUR LITERATURA • M.ZUAZUBISKAR

"Kaka Dantzariaren pertsonaia txikitan sortu nuen eta orain berreskuratu dut"

Bego Goitia durangarrak 0tik 8 urtera bitarteko haurrei zuzenduta dagoen lana kaleratu berri du

Komunikazio eta publizitate agentzia batean lanean dabil Bego Goitia durangarra eta bere lehenengo liburua kaleratu berri du Durangoko Azokara begira. Txikia zenean sortu zuen pertsonaia berreskuratu du bere lanerako.

Bego Goitia Arrola
Kaka Dantzaria liburuaren egilea
Durango | 1983

'Kaka Dantzaria' zure lehenengo lana kaleratu berri duzu. Zertan datza?
Azpitutuluak dioen bezala, dantzaria izan gura zuen kaka zati baten istorioa da. Kaka zati horren ametsa dantzaria izatea eta antzoki handi batean dantza egitea da. Baina liburuan zehar ikusiko dugu ez diotela dantzaria izaten uzten, eta ikusi beharko dugu ea bere ametsa egia bihurtzen duen.

Oinarrian liburu guztiek izaten dituzte mezuak. Zureak ere izango du mezuren bat.
Bai, hainbat mezu ditu, eta oso politak gainera. Hazkuntza pertsonalagaz eta autoestimuagaz zerikusia dutenak. Gainera, hasiera batean "baliorik ez duen horri", kaka zati bati, balioa ematen zaiola ikusi daiteke. Horrez gain, txikitan jartzen dizkiguten etiketek gero nagusitan baldintzatu egiten gaituztela ere ikusi daiteke liburuan.

Liburua oso dibertigarria eta xelebrea da. Hala ere, hainbat ñabardura dituela esango nuke eta irakurketa bakoitzean zenbait mezu aurkitu daitezkeela.

Lan hau egiterako orduan, ez zaizu imajinaziorik falta izan.
Beti izan naiz imajinazio handikoa. Txikitan oso fantasiatsua nintzen. Berez, Kaka Dantzariaren pertsonaia txikia nintzenean asmatu nuen eta orain berreskuratu dut. Autoan gindoazela, amak istorioak asmatzera animatzen ninduen, ez zorabiatzeko eta bidaia lasaiagoa izateko. Kaka Dantzaria bospasei urtegaz sortu nuen. Istorioa gogoan ez dudan arren, pertsonaia bera da. Orain apur bat moldatu egin dut ipuinera ekartzeko.

Zerk bultzatu zaitu txikitan sortu zenuen pertsonaia hori ipuin batera eramatera?
Egia esan, denbora askoan izan dut ideia buruan. Gogoa izan dut aspalditxoan egiteko, baina egunerokotasunak ez zidan egiten uzten, eta, azkenean, udan proiektuagaz hastea erabaki nuen, oporretan nengoela. Momentua heldu zenean, horri heldu nion eta egin egin dut. Ez nau ezerk bultzatu bereziki.

> *"Ni ez naiz ilustratzailea, eta marrazkilari moduan izan dudan lehenengo esperientzia izan da"*

Zure lehenengo lana izan da. Gustura gelditu zara egindakoagaz?
Esperientzia oso polita izan da eta oso pozik nago emaitzagaz. Ni ez naiz ilustratzailea eta marrazkilari moduan izan dudan lehenengo esperientzia izan da. Oso gustura aritu naiz marrazkiak egiten. Ikaragarri ondo pasatu dut.

Autoekoizpenaren aldeko apustua egin duzu. Zergatik?
Modu natural batean irten zitzaidan, gai ikusten nuen neure burua autoekoizpen moduan egiteko eta apustua egitea erabaki nuen. Tresnak nituen, baita hornitzaileen kontaktuak ere. Beraz, gauza asko nituen neure eskura. Gainera, lana hasieratik amaierara kontrolatu ahal izateak lan hori askoz pertsonalagoa egiten duela uste dut.

Durangoko Azoka gainean dago. Orain arte kanpotik ikusi duzun hori barrutik ezagutzeko aukera izango duzu aurten. Bertigorik ematen du?

> *"Ilusio handia dut Durangoko Azokarako. Gehien bat ikusteko nolako harrera daukan liburuak bertan"*

Egia esan, ilusio handia dut Durangoko Azokarako, gehien bat ikusteko Kaka Dantzariak nolako harrera daukan jendearen artean. Nire ingurukoek oso ondo hartu dute liburua, baina ezezagunek ea nola hartzen duten jakin gura dut. Hala ere, Durangoko Azokak bertigo apur bat ematen du, bai.

Azokan ikusiko zaitugu?
Bai, bariku arratsaldean 17:00etatik aurrera Azokan egongo naiz eta baita domeka goizean ere. Norbaitek nigaz egon gura badu, Kaka Dantzariaren jertse bat jantzita aurkituko nau.

IURRETA
Tellitu-n
3 logelatako
6 etxebizitza
2 logelatako
11 etxebizitza
Garajea eta
trastelekua barne
STOP
ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Kontsultatu beste aukerak
Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Zuriñe Agirre artisau gasteiztarra omenduko dute Euskal Denda azokaren 23. edizioan

Durangoko merkatu plazan izango den azokak 52 erakustoki hartuko ditu abenduaren 5etik 9ra bitartean

ARTISAUTZA • **JONE GUENETXEA**

Euskal Herriko artisautza bultzatzeko, Arbaso elkarteak 23. Euskal Denda azoka antolatuko du. *Artea loratzen* izango da edizio honetarako aukeratu duten goiburua. Aurten, Zuriñe Agirre hil berri den artisau gasteiztarraren lanak izango dira ikusgai merkatu plazako beheko aldean. Lur Keramika izenagaz, Agirrek figura bitxiak egiten zituen Gabonetako jaiotzetan ipintzeko. Euskal Dendako arduradunek prentsaurrekoan azaldu dutenez, artisau gasteiztarrak eraikitzen zituen eszenak xehetasunez beteak egoten ziren. "Gasteizko Alde Zaharreko Txikita lokaletik urteetan Euskal Dendaren ardura izan zuen; orain ohorezko agurra egin gura diogu", diote Euskal Dendako kideek.

Nobedade ugari

Durangon lehenengoz parte hartuko duten artisauen kopurua %20 da. "Argi geratzen da sektorean belaunaldi berria datorrela eta erakundeen aldetik laguntza behar duen gremioa dela", diote Arbasokoek. Guztira, 52 erakustoki jarriko dituzte. Horietatik 6 Durangaldekoak izango dira. Arabatik 9 artisau etorriko dira, Bizkaitik 25, Gipuzkoatik 9, Lapurditik 1, Nafarroatik 7 eta Nafarroa Beheratik 1.

"Argi dago belaunaldi berria datorrela eta laguntza behar duen gremioa dela"

Sektoreka askotariko produktuen erakusleiho izango da Euskal Denda: nekazaritzako elikagaiak, beira, zura, larrua, ehungintza, zeramika, artea, euskal kirola, kosmetika, bitxigintza, imitaziozko bitxigintza, zapatak eta lore lehorrak egongo dira bertan.

Iaz, Euskal Dendak 26.720 pertsona hartu zituen. Azoka honetara doan bisitaria "fidela" dela azpimarratu dute antolatzaileek. "Krisi sasoi honetan, Azoka bultzada bat da sektorearentzat", gaineratu dute.

Iaz, Euskal Dendak 26.720 pertsona hartu zituen. Publiko "fidela" dela diote antolatzaileek

"Azoka birpentsatu behar dugu. Instituzioetatik dena zurruntzen ari dira"

Hausnarketarako sasoia

Bernat Vidal Arbasoko arduradunak aurreratu duenez, artisau azokaren inguruko hausnarketa egiteko asmoa dute. "Azoka merkatu bat bilakatzen ari da", dio Vidalek. Gogoeta hori, baina, 25 ediziorako utzi gura dute. Aldaketa bat "beharrezkoa" dela nabarmendu du Euskal Dendako kideak. "Azoka birpentsatu behar dugu. Instituzioetatik dena zurruntzen ari dira. Posible da laguntzarik barik gauzak guk gura dugun moduan egitea", adierazi du.

Iazko Euskal Dendako argazkia.

Zuriñe Agirre artisau gasteiztarra.

“18 urteren ostean, ilusio handia egiten dit Durangoko Euskal Dendara itzultzeak”

Nuria Conesak postua jarriko du Durangoko Euskal Dendan. Espainiako Artisautza Saria irabazi du

Nuria Conesa Caballero
Artisaua
Alacant | 1966

DURANGO • JONE GUENETXEA

Nuria Conesa 'Nuna'-ren azoka kutuna da Euskal Denda. Orain 18 urte etorri zen azkenengoz, bere ehungintza lanekin. Aurtengoa 'Nuna'-ren itzulera urtea izango da. Oraingo honetan, beste proposamen bategaz dator.

Ehungintzan zabiltza. Mundu zabal horretan, zein lan egiten duzu?
Feltrozko teknika bat lantzen dut, Feltro Nuno deitzen dena. Japonieraz Nunok ehuna esan gura du. Feltro hau artileagaz nahastu eta beste ehun bat sortzen da.

Ehun horregaz zein arropa eta osagarri sortzen dituzu?
Brotxeak, bufandak, poltsak, soinekoak... Hala ere, tailerrean berokiak eskatzen dizkigute gehien.

Enkarguz eta neurrira sortzen dituzue, ala dendan eginda dituzue eta bezeroak horiek erosi ditzake?
Neurrira egiten ditugu. Pieza batzuk izaten ditugu dendan bezeroari erakusteko. Hortik, bezeroak bere koloreak aukeratu eta bere neurriak hartzen dizkiogu. Pieza esklusibo bat egiten dugu pertsona bakoitzarentzat.

Beraz, ehuna lantzen duzue lehenengo, eta gero, arropa.
Ehunak lantzen ditut, eta, gero, horrekin arropak diseinatu. Patroi baten gainean lan egiten dugu, baina pieza osoa da, josketarik barik.

Domaikian bizi zara, Araban, baina non duzu tailerra?
Hantxe. Kortako goiko partea kondu dut, tailer moduan.

> *“Beste pertsona batzuk trebatzen ditut, feltro Nuno edo beste teknika batzuekin jardun dezaten”*

Tailerrean ikastaroak ere ematen dituzu.
Nire lanaren zati garrantzitsu bat formakuntza da. Beste pertsona batzuk trebatzen ditut feltro Nuno edo beste teknika batzuekin jardun dezaten. Hortaz, tailerra mundu osotik etortzen diren artisten topagune izaten da, udan batez ere.

> *“Durangoko Azokaren ostean, Genevan egongo gara, Gabonetako azoka batean”*

Domaikian bizi zaren arren, jaiotzez andaluziarra zara.
Bertakotua nago honezkero. 26 urte daramatzat hemen bizitzen.

Zure arropa hainbat sortzaileren gune batean dago salgai Genevan.
Bai, Durangoko Azokaren ostean, hantxe izango gara, Gabonetako azoka batean, denda horretatik gertu.

Diseinatzaileek sarea sortu duzue nazioartean. Zein lotura duzue?
Europako ehungintza sarea indartsua da. Estatuan ere badaude elkarteak. Ni neu Kataluniako gremioan nago. Estatuan dagoen artisauen gremiorik zaharrena da. Badugu harremana denon artean eta bidaiak egiten ditugu elkarri proposamenak egiteko.

Jendeak badaki baloratzen artisau lan baten atzean dagoen lana?
Nire lana aintzatetsi dutela uste dut. Mundu guztiak ez du zertan ulertu pieza bakoitzaren atzean dagoen lana, baina jendeak geroago eta gehiago ulertzen du artisautzak duen garrantzia gizartean. Gizarteari egiten diogun ekarpena handia da. Gure lanak ez daude plastikoz seriean eginda. Ez du fabrika batek egiten. Pertsona batek egiten ditu eta edozeinek gozatu ditzake energia berezi hori sentituz. Nik pieza bakarrak lantzen ditut. Denak dira ezberdinak. Denek arima izatea gura dut, eta nire publikoak ulertzen du hori.

> *“Gizarteari egiten diogun ekarpena handia da. Gure lanak ez daude plastikoz seriean eginda”*

Durangoko Azoka aurretik ere ezagutzen duzu.
Orain 18 urte etorri nintzen azkenengoz Durangoko Euskal Dendara. Sasoi hartan tinte naturalak egiten nituen eta ehungintzan lan egiten nuen. Urteko azokarik kutunena izaten zen. Aurten itzuli egingo naiz eta ilusio handia egiten dit. Oso pozik nago.

durango irratia
Larrasoloeta Kalea 5 • DURANGO
Tel.: 94 621 55 99
www.durango-udala.net/durangoirratia
durangoirratia@durango-udala.net
107,8
Frekuentzia
Durango irratia
Gertukoena
Azoka egunetan,
Durango irratian, bertsolaritza, musika eta herriko sortzaileak
Durango Irratia
https://www.facebook.com/durangoirratia
@Durango_Irratia
DURANGO
Udala · Ayuntamiento

ttap
1. URTEA / 11. ZENBAKIA / EDIZIO BEREZIA / 2018KO AZAROAREN 30A
DA!
53. DURANGOKO A
DA!
53
DA!

Durangaldea
Bizi eta ezagutu!

Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

ESKUALDEKO ARGITALPENAK

2018ko nobedadeak

Astola
Hainbaten artean
Argitaletxea: **Gerediaga elkartea**

Orain 12 urte bere ibilbidea hasi zuen ikerketa eta historia urtekariak zenbaki berria dauka. Ikuspegi pausatuago batetik, eskualdearen historia, gaurkotasuna eta ondarea ezagutzera emateko argitalpena da. Zortzi artikulu, erreportaje eta ikerketa dira.

Julene Azpeitia lehiaketa
Hainbaten artean
Argitaletxea: **Durangoko Udala**

Durangoko Udalak literatur lehiaketa antolatzen du urtero, Julene Azpeitia irakasle eta idazlearen omenez. 2018an saritutako ipuinak, olerkiak eta bertsoak irakurri ahalko dira azokara ekarritako argitalpen honetan.

Ametsen faktoria
Jose Martin Urrutia 'Txotxe'
Argitaletxea: **Eztena jaialdia**

Karrika antzerki taldeak 2008an prestatutako lana liburura ekarri du Eztena jaialdiko argitaletxeak. Karrikaren eta San Agustin kulturgunearen 10. urtemugak ospatzeko sortutako lana izan zen. *Txotxe*k urteetan zehar eginiko lanaren aitortza izan gura du.

Kaka dantzaria
Bego Goitia
Argitaletxea: **Autoekoizleen plaza**

Dantzan egin gura zuen kaka zati baten istorioa da. Bere ametsa bete gura du: antzoki batean dantzan egitea jende guztiaren aurrean. Istorio honen atzean hazkuntza pertsonalagaz lotura duten mezuak daude, umeentzat zein nagusientzat aproposak direnak.

Krisis 4.0
Muted
Argitaletxea: **Autoekoizleen plaza**

Muted musika talde abadiñarra bueltan dator. Iaz bueltatu ziren eszenatokietara, eta aurten disko berria dakarte. Metal astuneko doinuak melodiekin eta ukitu elektronikoekin nahastu dituzte. Aitor Gorosabelek eta Aiora Renteriak kolaboratu dute diskoan.



Neska bat leku inposiblean
Xabier Amuriza
Argitaletxea: **Elkar**

Errealismo osoz kontatzen du 1968an, ihes egiteko asmoz, Zamorako apaiz-kartzelan preso zeudenek eraiki zuten tunelaren istorioa. Baina, elementu fantastiko bat eransten dio: neska bat sartzen da ezkutuan, zulogileei euren ihes ahaleginean laguntzera.



Mendiaren altzoan
Oihana Azkorbebeitia
Argitaletxea: **Erroteta**

Abadiñoko kirolariak hainbat hausnarketa plazaratuko ditu bere liburuan. Lasterketak, familia, amatasuna, txikitako akorduak, mendizaletasuna... Errotetagaz argitaratu du liburua, eta Durangaldeko argitalpenak standean egongo da salgai.

Musua
Leire Blbao/Pirritx, Porrotx, Marimotots
Argitaletxea: **Katxiporreta**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen disko berria kalean dago, eta Durangon bizi den Leire Bilbao idazleak egin ditu abestien letrak. Aparte, Bilbaok ibilbide oparoa du literaturan, eta umeentzako ipuin ugari ere baditu eginda.

Gure oroitzapenak
Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: **Elkar**

Iurretako idazlearen poemak musikatu dituzte hainbat talde eta bakarlarik: Mikel Udangarinek, Anarik, Rafa Ruedak, Audiencek, Micek, Libek, Mursegok, Zea Maysek, Amorantek, Joseba Irazokik... Diskoliburu formatuan argitaratu dute.

Mugarrapetik kontu kontari
Nikolas Alzola 'Bitaño'
Argitaletxea: **Labayru fundazioa**

Nikolas Alzola *Bitaño* izurtzarrak idatzitako ipuinak jaso dituzte liburuan, berak egindako marrazki batzuekin lagunduta. Antton Mari Aldekoa-Otalora, Xabier Boveda, Alberto Errazti eta Sebastian Gartzia dira egileak.



Aramotz
Iñaki Irasizabal
Argitaletxea: **Elkar**

Iñaki Irasizabal zornotzarraren nobela berria da. Elkar ezagutzen ez duten neska bik, Saioak eta Edyk, topo egiten dute pisu batean droga erosten. Zoritxarreko gertakari batzuen erruz, ihes egin beharra izango dute biek. Aramotz mendian ezkutatuko dira.

Txorieneko lau urtaroak
Zigor Iturrieta
Argitaletxea: **Erein**

Zigor Iturrieta eubarrak ETBko Txoriene saioan landutako errezetak liburuan batu ditu. Errezeta bakoitza gonbidatu bategaz doa lotuta. Antzinako errezeta liburuetan bezala, errezetak urtaroka daude sailkatuta.

Itsasadarreko kontuak
Paddy Rekalde
Argitaletxea: **Elkar**

Oporretako lehenengo astean, gurasoek aitita-amamen etxera eraman dute Gari, itsasadarrera. Han dena da ezberdina eta berezia, egunerokotasunetik irten eta lagun berriekin hirian ez bezalako abenturak bizitzen dituelako.

Poza
Uxue Alberdi / Eider Eibar
Argitaletxea: **Elkar**

Bertsotan idatzitako album ilustratua dakarte Durangoko Azokara Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak eta Eider Eibar irudigile zornotzarrak. Umeei zuzendutako lana da, eta pozari kantatzea da euren helburua.



Haur Besoetakoa
Unai Iturriaga / Alex Sanvi
Argitaletxea: **Ikastolen elkartea**

Sail bereko bigarren albuma da hau: *Haur Besoetakoa: Paristik datorren artista*. Aurretik, *Haur Besoetakoa: Litxarrerien jauna* argitaratu zuten. Komiki ganberroa da, nobela beltz bat, haurren munduan girotua.

Familia Milakolore
Miren Amuriza
Argitaletxea: **Elkar / Katxiporreta**

Berriztarrak idatzitako eta Julen Toquerok diseinatutako kartoizko ipuin bilduma da, lau lan jasotzen dituena: *Hodei*, *Kukuenea*, *Larunbata* eta *Mattin eta Kattin*. Katxiporretak eta Elkarrek sustatu dute, eta familia ereduen aniztasunaren lanketa du oinarri.

Bizitzea ez al da oso arriskutsua? (Habanako gaukaria)
Joseba Sarionandia *Argitaletxea:* **Pamiela**

Aurten bete dira 50 urte 1968ko errebolta izan zenetik. Data hori abiapuntu lez hartu du Joseba Sarrionandiak bere eguneroko edo gaukari hau osatzeko, testu laburrez eraikia. Egilearen gaur egungo bizilekuan kokatzen da, Habanan.



Bat, bi, hiru
Nadia Budde / Xabier Olaso
Argitaletxea: **Pamiela**

Nadia Buddek idatzitako liburu bi itzuli ditu Xabier Olaso otxandiarrak. *Bat, bi, hiru txiruliru* eta *Bat, bi, hiru banpiro* dira. Hainbat egoera eta jokaeratan dauden pertsonaia arraro eta baldarren jolas kateatuan oinarritzen dira.



Después del 68
Mikel Onandia
Argitaletxea: **Bilboko Arte Ederren Museoa**

Arte Ederren Museoak erakusketa inauguratu du, azken 50 urteotako euskal sorkuntza batzen duena. Horren harira, *Después del 68 : arte y prácticas artísticas en el País Vasco 1968-2018* katalogoa osatu du Mikel Onandia durangarrak.

Ostalaritza gida

anboto

Durango

MIKELDI GELTOKIA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Alde zaharrean kokatua.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

Durango

TXORIA NUEN MAITE
San Roke, 17- DURANGO
Tel.: 946 218 339

Afariak, koktelak zein kafeak maitasun eta profesionaltasunez prestatuak.

Durango

GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

Durango

KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

Durango

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

Muxika

ASTEI JATETXEA
Muniketa auzoa 8, MUXIKA
Tel.: 946 732 318

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak…
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

Zornotza

IBARRA SAGARDOTEGIA
Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA
Tel.: 946 731 100

www.ibarra-sagardotegi.com

Abadiño

ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango

GURE KABIYA
Goienkalea, 11 behea - DURANGO
Tel.: 944 71 42 46

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

Durango

URRATS
Juan Antonio Abasolo Kalea, 3.
Tel.: 946 81 25 18

Gosariak, bokatak eta pintxoak. Ostiral eta larunbat gauetan hanburgesak. Larunbat eta igandetan babarrunak enkarguz.

Iurreta



LA GIPUZKOANA
Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA
Tel.: 946 811 005

Eguneko menua astelehenetik larunbatera 12:30etatik 16:00tara. Menu bereziak enkarguz. Berezitasuna, “arrautza apurtuak”

Durango

ANTTONIO´S-GURE TOKI
Goienkalea, 2 - DURANGO

Rock musikarik onena, lagunarteko giroa eta pintxo goxoak.

Bernardo Atxagaren 'Soinujolearen semea' eleberrian oinarritutako filma proiektatuko dute Durangoko Azokan

Irudienea gunean emanaldi berezia emango dute abenduaren 8an, 12:30ean; gonbidapenak abenduaren 5etik aurrera eskuratu daitezke

ZINEMA • JONE GUENETXEA

Bernardo Atxaga idazlearen eleberrian oinarrituta dagoen *Soinujolearen semea* filma Durangoko Azokan ikusgai izango da bere estreinaldiaren aurretik, Irudienean. Film honetan, David hilzorian dago, eta Joseba, txikitako laguna, azken agurra egitera joan da Kaliforniara. Biak ETAko kideak izan ziren, Francoren diktaduraren azken urteetan. Davidek bere herritik alde egin behar izan zuen, bere kideek arbuiaturik. Orain, aspaldiko lagun hauek egiari aurre egin beharko diote, azken topaketa honetan. Adiskidetasun, traizio eta indarkeriari buruzko istorio hunkigarri hau protagonisten hiru garaitan oinarritzen da (haurtzaroan, 20 urte dituzteneko garaian eta, azkenik, 50 urte inguru dituztenekoan), Euskal Herrian bizi izandako historia aztertzeko.

Antzerkiak izandako harrera onaren ostean, Fernando Bernués telebista, zine eta antzerki zuzendariak (*Kutsidazu bidea, Ixabel, Uda gau bateko ametsa*) eleberri hau pantaila handira eraman du aktore hauen laguntzagaz: Aitor Beltrán, Iñaki Rikarte, Cristian Merchán, Bingen Elortza, Joseba Apaolaza, Mireia Gabilondo, Frida Palsson, Miren Arrieta, Laia Bernués eta Eneko Sagardoy (2018ko Aktore berririk onenaren Goya Saria), besteak beste.

Patxo Telleriak egokitu du zinemarako gidoia, eta musika Fernando Velazquezen eskutik gozatzeko aukera izango da (*Lo imposible, Un monstruo viene a verme* 2017ko Musika originalik onenaren Goya Saria).

Erronka honi aurre egiteko, Abra Prod eta Tentazioak ekoiztetxeek profesional ezagunen laguntza izan dute: Gonzalo F. Berridi (*8 apellidos Vascos, La Buena Nueva*) argazki zuzendaria; Peio Villalba arte zuzendaria (*Igelak, Bi anai*); jantzitegi lanetan Saioa Lara (*Operación Concha, Handia*- 2018 jantzitegirik onenaren Goya Saria-); eta pertsonaien karakterizazioaz, makillaje eta ile-apainketa lanetan, Karmele Soler (*Lasa eta Zabala, La piel que habito* -2012ko Makillaje eta ile-apainketarik onenaren Goya Saria-) eta Olga Cruz (*Bajo la piel del lobo, Handia* -2018ko Makillaje eta ile-apainketarik onenaren Goya Saria-) arduratu dira.

Fernando Bernuesen filma Durangoko Azokan ikusgai izango da bere estreinaldiaren aurretik

Patxo Telleriak egokitu du gidoia, eta musika Fernando Velazquezen ardura izan da

www.plateruena.eus
PLATERUENA
PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net
Abenduak 1 · 22:30ean
DES-KONTROL + ROTTEN XIII
Kontzertua
Abenduak 5 · 23:00etan
HUNTZA
Kontzertua
Abenduak 6 · 23:00etan
ESNE BELTZA
Kontzertua

SZENATOKIA
arte eszenikoen plaza
ABENDUAK 1
19:00 ALARDE DE DANZAS
2018ko Aste Kulturala
ABENDUAK 6
19:00 TXARRIBODA
Hika Teatroa
ABENDUAK 7
19:00 BASERRI
Larrua Produkzioak
ABENDUAK 8
19:00 MIKROANTZERKI SAIOAK
Tomiris: Atx Teatroa
Agur eta Dolore: Kamikaz Kolektiboa eta Ttak Teatroa
Schrodinger-en katua: Anodino Teatroa
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus
San Agustin KULTUR GUNEA

Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

3D PRINT COLOR
-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-% 5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN
- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA
-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA
-%15 sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA
-% 5 eskola eta bulego materialean.
-% 5 opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA
- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA
-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA
-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-% 10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA
-% 5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB
-% 20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

URKI KOPISTEGIA
-% 10 amantaletan
-% 10 jolasetan

URRIKE LIBURU-DENDA
-%5 liburuetan.
-% 10 papergintzan.

HITZ LIBURU-DENDA
-%10 euskarazko liburuetan.

IURRETA KOPISTEGIA
-%5 eskola eta bulego materialean.
-%5 opari eta liburuetan.

URRIKE LIBURU-DENDA
-%5 liburuetan.
-%10 papergintzan.

Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagu-

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558
Anboto Komunikabideak · @anboto · @anbotokomunikabideak

Anbotoren lagunak
Oraindik ez zara ANBOTO LAGUN?
Izena eman eta parte hartu hurrengo zozketetan!

Anboto Komunikabideak · @anboto · @anbotokomunikabideak
Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

ANBOTOREN LAGUNEN ARTEAN **afede**-KO **130 EUROKO 5 OPARI BONO** ZOZKATU DITUGU.

HAUEK IZAN DIRA IRABAZLEAK:
- JOSE ALFARO
- JOSEBA ARRINDA
- TXARO AZPIRI
- OLAIA ORBEGOZO
- ALVARO GUTIERREZ

ZORIONAK!

afede

“Oso harrera beroa eduki dugu; jendea motibazio handiagaz dabil abesti guztiak abesten, eta oso hunkituta gaude, oso eskertuta”

Abenduaren 8an kontzertua eskainiko du Anestesiak Plateruenean; 'Gorrotoaren Ahotsa' diskoaren 25. urtemuga dela-eta, sei kontzertuko bira bereziagaz dabiltza errepidean

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Euskarazko metalean mugarria den lana da 'Gorrotoaren Ahotsa'. Kaleratu eta hogeita bost urtetara, diskoa berrargitaratu du Anestesia taldeak, biniloan. Horrez gainera, sei kontzertuko bira egiten ari da talde zarauztarra. Zale fidelak ditu laukoteak, eta oraingo honetan ere, horrela izaten ari da: igaro diren aretoetan agortu egin dira sarrera guztiak. Taldekideak "hunkituta" daude jasotako erantzunagaz, eta taula gainean hustuz (hiru hamarkadatan zehar egin duten bezala) erakusten ari dira euren esker ona. Hain justu ere, 30 urte bete dira Anestesia taldea sortu zela, eta urtemuga hori ere ospatzen ari dira zuzenekoen bitartez. Hala ere, "atzera begirako gauza puntuala" dela argitu gura izan du Mikel Kazalisek. Plateruenekoaz gainera, bira berezi hau ikusteko aukera bakar bat gehiago egongo da: urtarrilaren 19an, Biarritzeko Atabalen. Bietan ere, sarreren salmenta abiada bizian doa, eta, beraz, 'Gorrotoaren Ahotsa' zuzenean gozatzea gura duenak bizkor ibili beharko du. Ibon abeslariagaz, Dani baxu-jotzaileagaz eta Beloki bateria-jotzaileagaz batera osatzen du Kazalisek Anestesia.

'Gorrotoaren Ahotsa. 1993-2018, 25 Urte' bira amaitzen ari zarete. Pozik izandako harreragaz?

Egundokoa izaten ari da. Egia esan, bagenekien edo sumatzen genuen zerbait berezia izango zela, alde batetik kontzertu gutxi izango zirelako, eta bestetik errepertorio zaharra baina berezia genuelako. Hala ere, espero genuena baino handiagoa izaten ari da jendearen erantzuna. Orain arteko kontzertuetan areto guztiak bete ditugu [Bilboko Kafe Antzokia, Gasteizko gaztetxea, Donostiako Doka...; Iruñeko Errotxapea auzoko gaztetxean kontzertua eskaintzekoak ziren, baina bertan behera geratu zen azken unean]. Horrez gainera, jendea motibazio handiagaz dabil abesti guztiak abesten. Oso harrera beroa izan dugu, eta, egia esateko, hunkituta gaude, eta oso eskertuta.

Eroso zabiltzate taula gainean material hain zaharra jotzen?

Hasieran zalantzak genituen, izan ere, ez gara atzera begiratzearen batere zaleak. Kasu honetan, ideia bururatu zitzaigunean, lehenbiziko gauza kantuekin ea gustura sentitzen ginen frogatzea izan behar zela pentsatu genuen. Gertatu ohi da, urteak pasatu ahala abesti batzuk atzean geratzea, eta hori frogatu gura genuen. Guri ere gertatu izan zaigu, maketako abestiekin eta lokalean probatu izan ditugunean. Bazeuden abesti batzuk lehenbiziko disko horretatik espreski berreskuratu behar genituenak, eta gure zalantzak genituen horiek jotzean eroso egongo ote ginen ala ez. Argi genuen eroso egon ezik aukeraketa moduko bat egingo genuela. Beraz, hasieran disko osoa goitik behera jotzea planteatu genuen. Lokalean sartu

> “*Ez dakit errekorra dugun, baina 1.000 pertsona sartu genituen Plateruenean*”

> “*Iruditzen zaigu publiko zabalak Hilotz, Mitosia, Ankhar eta Dama taldeak ezagutu behar dituela, besteak beste*”

PLATERUENA KONTZERTU HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguaztena

11:00 IKASLE EGUNA. Euskal kantagintza kontzertuan
Betiko Euskal kanten eta kanta garaikideen transmisioa helburu duen kontzertua.

23:00 Huntza. Sarrera: 8 €.

ABENDUAK 6, eguena

12:00 Hautsi bolumena. Azoka TBk ekoiztuko duen musika saioa.

23:00 Esne Beltza. Sarrera: 10 €

ABENDUAK 7, barikua

12:00 Hautsi bolumena. Azoka TBk ekoiztuko duen musika saioa.

23:00 Modus Operandi. Sarrera: 8 €.

ABENDUAK 8, zapatua

12:00 Hautsi bolumena. Azoka TBk ekoiztuko duen musika saioa.

23:00 Anestesia. Sarrera: 10 €.

ABENDUAK 9, domeka

12:00 Hautsi bolumena. Azoka TBk ekoiztuko duen musika saioa.

17:56 Olatz Salvador. Sarrera: 8 €.



Mikel Kazalis eskuman, Anestesiaren hastapenetako argazki batean.

eta diskoa osorik jo genuenean probatzeko, harrituta geratu ginen zein gustura jo genuen, eta hor bertan erabaki genuen diskoa osoosorik jotzea. Eta horrela izaten ari da. [Kontzertuaren lehenbiziko zatian *Gorrotoaren Ahotsa* jotzen dute, eta bigarren zatian Anestesiaren ibilbideko beste hainbat abesti esanguratsu].

Itzuli zinetenetik, hainbat bider pasatu zarete Plateruenetik. Berezia al da zuentzat areto hau?

Bai. Egia esan, oso kontzertu indartsuak eskaini ditugu bertan. Ez dakit, gainera, ikusle errekorra ez ote den gurea. Izan ere, denboraldi luze batean jo barik egon ostean, Bizkaian eman genuen lehenbiziko kontzertua bertan eskaini genuela gogoratzen naiz, eta 1.000 pertsona inguru egon zirela. Normalean ez dugu hainbeste jende eramaten kontzertuetara, eta harrigarria izan zen. Leku berezia eta maitatua da guretzat.

> ***"Lokalean sartu eta, probatzeko, diskoa osorik jo ostean, harrituta geunden zein gustura jo genuen"***

> ***"Atzera begirako gauza puntuala egin gura genuen; ez genuen gura urtebetez abesti zahar hauek jotzea"***

Bira honetako lehenbiziko kontzertuetan ibilbide laburragoko taldeekin aritu zarete oholtza gainean. Badago errelebo aldaketarik euskal metalean?

Hain zuzen ere, horregatik eraman ditugu talde horiek gugaz azkenaldian. Nahiz eta gutxi izan, badago belaunaldi berri bat, ez gainera heavy metal klasikoa jorratzen duena, baizik eta muturreko metala egiten duena, pixka bat gure antza izan dezaketena, eta euskaraz abesten dutenak, gainera. Hori ez da ohikoena, eta horregatik eramaten ditugu gustu handiz gure kontzertuetara. Iruditzen zaigu publiko zabalago batek ere ezagutu behar dituela Hilotz, Mitosia eta Ankhar taldeak, besteak beste. Dama, adibidez, Bilboko Kafe Antzokira eraman genuen, eta itzela da aldea. Beharbada ez dira ezagunegiak izango, eta guretzat plazer ikaragarria da horrelako taldeak publiko zabalago batengana eramatea.

30 urteko ibilbidean, 25 urteko bira hau berezia da. Erabakita duzue zein izango den hurrengo pausoa?

Egia esan, ez. Printzipioz, bira hau amaitzerakoan, pixkanaka abesti berriak idazten hasiko gara. Normalean ez zaigu gustatzen inertziagatik jarraitzea, ez dugu gustuko publikoari ezer berririk eskaini barik jarraitzea. Aurtengo bira hau kontu berezi bat izan da. Atzera begirako gauza puntual hau egin gura genuen, eta horregatik egin ditugu kontzertu gutxi batzuk. Ez genuen gura urtebete pasatzea kantu zahar horiek jotzen. Ez dakit jendeak gurako lukeen, baina guk ez. Guretzat ospakizun berezi bat izan behar zen. Hemendik aurrera, esku artean zerbait berria badaukagu eta eskaintzeko modukoa bada, orduan jotzen jarraituko dugu. Printzipioz, hori litzateke planteamendua, baina ez dugu ezer planifikatu oraindik. Oraingoz ez dakigu nolakoa izango den gure etorkizuna.

OLA JAUREGI
Hotel-Jatetxea
Ongi etorri!
Kurutziaga kalea, 52 Durango · Tel.: 946 200 864
info@olajauregi.com · www.olajauregi.com

UNAI GARAY
ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

Azkonizaga
Edari banaketa
GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK
Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

NACEX
INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es
San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162 / Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

“Etxeko edozeinek irakurtzeko moduko liburua dela uste dut: irakurterraza eta entretenigarria”

Oihana Azkorbebeitiak mendiagaz eta lasterketekin izan duen lotura jasotzen du 'Mendiaren altzoan' liburuak

AKUILUA • JOSEBA DERTEANO

Besapean garaikur bategaz beharrean, 'Mendiaren altzoan' liburuagaz dator oraingoan Oihana Azkorbebeitia. Umetatik mendiagaz izan duen lotura errepasatu eta azken denboraldiko lasterketetan bizitako gertaerak kontatzen ditu, makina bat argazki kuriosok lagunduta. Autoedizioaren aldeko apustua egin du, liburua bere gustura antolatu ahal izateko. Durangaldeko argitalpenen standean egongo da salgai Azokan.

Nola bururatu zitzaizun liburua idaztea?

Lasterketetara semeak gugaz eramaten ditugunez, eurentzako oroigarri moduan-edo, eguneroko koaderno bat egitea zen lehenengo ideia. Nagusitzen direnean nondik ibili diren ikusi dezaten. Orduan, pentsatu genuen: “Eta hemendik liburu bat ateratzen badugu?”. Ideia horri bueltak ematen hasi ginen eta horrelaxe irten zen aurrera.

Hutsetik abiatu zara ala aurrelan bat egina zenuen?

Bizipenak lasterketa amaitu eta lasterrera idaztea errazagoa da. Dena freskoago duzu buruan. Horixe egin dut, batez ere Munduko Kopako probetan, nazioartean ibili izan garenotan. Nik eguneroko moduko bat idazten nuen, goizetik gauera egindako guztia. Jakina, liburuan ez dago hori dena sartzerik eta interesgarriak diren pasarteak aukeratu ditugu. Lasterketen inguruan ere berdin. Ez dira kontakizun hutsa, ez dadin errepikakorra izan. Lasterketen inguruan ikusi, bizi eta sentitutakoak jasotzen ditu liburuak.

Erroteta argitaletxeagaz kaleratu duzu, baina autoedizioa izan da.

Ez genekien liburu bat ateratzeak zer lan zekarren, baina bagenekien argitaletxeek eskakizun batzuk izaten dituztela. Liburua geure modura egin gura genuen eta horrela irten da. Autoedizioaren abantaila horixe da: gura duzun moduan egin dezakezula. Desabantaila da norberak aurreratu behar duela dirua, eta salmenta kontuetan ere norbera mugitu behar dela.

Zenbat ale atera dituzu?

Asko. Gehienbat Azokan saltzea da esperantza, eta parra egitea. Gero, liburu-dendetan jarriko dut salgai. Eta Euskal Herriko lasterketetara ere eramango ditut ale batzuk, norbaitek eskatuz gero eskuragarri izateko eta jendeagaz gertutasun bat izateko.

Liburuko azala oso argazki indartsua da. Barrukoa ere indartsua den seinale?

Xabier Matarena da argazkia. Barrukoari buruz, irakurleak esan beharko du indartsua den. Lasterketen eta mendiaren inguruan nabil, jendeagaz partekatutako esperientziak jasotzen ditut, gure umeak agertzen dira… Etxeko edozeinek irakurtzeko modukoa dela uste dut: irakurterraza eta entretenigarria.

Argazkiek pisu handia dute liburuan.

Nire umetakoak, nagusitakoak… denetarik daude. Alderdi bisuala zaindu gura genuen, liburua astuna izan ez dadin. Argazkiek, sarritan, berbekin adierazi ezin dena azaltzen dute. Argazki bakoitzak istorio bat izaten du atzean eta dezente sartu ditugu.

Aurtengo Zegama-Aizkorriko kronikagaz hasi, haurtzarora salto egin eta 2018ko denboraldiagaz amaitzen duzu. Memoria liburu bat dela esan daiteke?

Antzeko bat. Mendiko nire ibilbideari eta mendiagaz izan dudan loturari egindako errepasoa da. Umetatik hasi eta gaur egunera artekoa.

Munduko mendirik handienen altzoan bizitakoa ere kontatzen duzu. Himalaiako zein aldetan murgilduko da irakurlea?

2012an trekking bi egin genituen han Mikelek [Azkarraga, Oihanaren bikotekidea] eta biok: Annapurnakoa eta Everestekoa. Nondik ibili ginen kontatzen dut. Toki dezente agertzen dira eta hango parajeetan ibili dena identifikatuta sentituko da. Abionetan gertatutako kontuak ere badaude. Istorio politak direla uste dut.

Mendiari eta korrikari ez ezik erreibindikazioari ere egin diozu lekutxo bat.

Liburuaren amaieran, logo bi jarri ditut: *Altsasukoak Aske* eta logo feministaBaina bigarren gaia baino ez dut jorratu. Emakumeak mendiagaz eta lasterketekin duen loturaren inguruan idatzi dut, labur. Abertzaletasunaren gaia ere jorratu dut, beti ere lasterketei lotuta.

> “Mendiko ibilbideari eta mendiagaz izan dudan loturari egindako errepasoa da; umetatik gaur egunera arte”

> “Argazkiek, sarritan, berbekin adierazi ezin dena azaltzen dute; alderdi bisuala ere zaindu gura genuen”

Orain hilabete eskas lehiatutako Hiru Haundiak probaren kronika ere egiten duzu. Denbora aldetik, nola konpondu zara aurtengo Durangoko Azokarako kaleratzeko?

Ziztu bizian ibilita! Hiru Haundiak proba luzea denez, informazio asko ematen du. Idatzitako guztitik zer sartu aukeratzea izan da lanik konplikatuena.

Liburuko hitzaurrea ondo ezagutzen zaituen laguntxo batek idatzi du.

Mikelek. Ondo ezagutzen nau, eta nor bera baino egokiagorik! Liburuari errepaso handia ere eman dio.

Bideo bat zabaldu zenuen liburua sustatzeko, eta birala egin zen. Liburua ondo salduko dela esan gura du?

Euskal Herrian asko zabaldu da bideoa sare sozialetan, eta, tira, salduko dela uste dut. Eider Alberdi zaldibartarrak prestatu zuen bideoa.

16 garaipen daramatzazu aurten. Non dago zure sabaia?

Aurten behintzat kopuru horretantxe! Ez dakit non dagoen nire muga. Datorren urtean, beharbada, ez ditut Euskal Herrian hainbeste proba lehiatuko. Aurten asteburu askotan lehiatu naiz eta nekatu egiten du. Garaipena lortzea baino gehiago, lasterketetan gozatzea dut helburu.

Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendiko korrikalaria
Abadiño | 1981